

**2022KO URRIAREN 27AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita zazpia.

**HILABETEA:** Urria.

**URTEA:** Bi mila eta hogeita bi.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK:**

EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA (EAJ-PNV)
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar

- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**ETORRI GABEAK:**

**IDAZKARIA:** Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak.

Bapateko itzulpen lanetan Nerea Larrañaga ibili da Traductores e interpretes S.A.ren enpresakoa.

Gai-zerrendarekin hasi baino lehen Alkate andreak, eskaera eta galderen atalaren aurretik, premiazko puntu modura ondorengo gaia tratatzea proposatu du:

Egun ethez-etxeko laguntza eta eguneko zentzoko zerbitzuak prestatzen dituen GOXARA, S.L. kontratistari kontratua luzatzea hurrengo esleipena burutu arte, lizitazioa etenda dagoelako pleguekiko errekurtso berezia aurkeztuearen ondorioz eta KEAOk oraindik ebatzi ez duelako.

Bozketa eginda, aho batez onartu da premiazko puntu modura aipatutako gaia tratatzea.

**1.- AURREKO AKTA.** 2022-07-21eko aktaren onespina.

Aipatutako aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

a.- KREDITU ALDAKETAK: 16. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA ETA DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETA. 2022CRAD0016

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, Antolakuntza batzordean tratatutakoa, gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamenari buruzkoa, hau da:

*“Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez, horien gauzatzea ezin baita atzeratu, , eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.*

<b>Aurrekontuko kontu saila</b> <i>Partida Presupuestaria</i>	<b>Kontzeptua</b> <i>Concepto</i>	<b>Kredituak / Créditos</b>		
		<b>Egunoak</b> <i>Actuales</i>	<b>Aldaketak</b> <i>Modificacio nes</i>	<b>Behin betikoak</b> <i>Definitivos</i>
0110.120.920.00.0 1	Oinarrizko ordaink: Zerb .Orokorrak	150.349,05	28.478,94	178.827,99
0110.130.153.00.0 1	Lab. finkoak: Obra . eta Zer. adm. orok	123.221,85	18.599,55	141.821,40
0110.131.153.00.0 1	Aldarteko laboralak: Obra. adm. orok.	35.798,08	25.685,76	61.483,84
0110.100.912.10.0 1	Gobernu organoei ordainketak	230.007,80	3.382,47	233.390,27
0110.110.920.10.0 1	Konfiantzako pertsonalaren ordainketak	50.204,00	738,29	50.942,29
0110.160.920.00.0 1	Gizarte segurantza: Zerbitzu orokorrak	144.673,49	19.226,15	163.899,64
0110.220.920.00.0 3	Zerbitzu informatikoa: IZFE	114.000,00	2.650,00	116.650,00
0110.227.311.00.9 9	Indem. Kiroldeg kontrat etetea COVID19	0,00	140.506,00	140.506,00
0261.212.340.20.0 1	Instalazioak eguzki panelak	100,00	5.900,00	6.000,00
0110.369.934.00.0 1	Kontu korronteen mantenu interesak	11.275,00	4.000,00	15.275,00
0240.481.330.00.0 3	Aizkorri Mendizale elkarte	7.150,00	2.000,00	9.150,00
0241.481.323.40.0 1	La Salle San José ikastetx 2019-2020 gastuak	0,00	100.000,00	100.000,00
0241.481.323.50.0 3	Andramendi ikastola 2019-2020 gastuak	0,00	44.000,00	44.000,00
0390.211.323.20.0 1	Eraikinen iraupena: Alkartasuna Lizeoa	85.000,00	30.000,00	115.000,00
0390.622.323.30.0 1	Sehaska harreskola: zoru radiantea	105.000,00	15.000,00	120.000,00
0350.623.172.00.0 2	Autokonts. kolektibo instalaz (proiektua)	0,00	25.000,00	25.000,00

0350.601.164.00.0 1	Hilerriko birgaitze proiektua	0,00	18.150,00	18.150,00
0350.643.172.00.0 2	Errekarga puntuen bideragarritas. azterk	0,00	18.150,00	18.150,00
0350.211.311.00.0 1	Errekarteko etxebizitzetan usoen babesa	0,00	7.000,00	7.000,00
0350.601.153.00.0 1	Kirol eta nagusien parkeetako hobekuntza	0,00	25.000,00	25.000,00
0350.682.172.00.0 1	Olarango lurren tratamendua	0,00	48.400,00	48.400,00
0390.221.165.00.0 1	Energia elektrikoa: argiteria publikoa	125.000,00	50.000,00	175.000,00
0390.210.337.30.0 2	Instal. iraupena: haur parkeak	15.000,00	15.000,00	30.000,00
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>		<b>1.196.779,27</b>	<b>646.867,16</b>	<b>1.843.646,43</b>

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "En general estamos de acuerdo con todos los créditos que se presentan menos los que se presentan para gastos de 2019 y 2020 de los colegios La Salle San Jose y Andramendi. Se recogen como gastos y los colegios concertados por ley ya tienen de la administración pública una aportación. No entendemos por qué se contempla de esta manera, cuando en el informe de la técnica se hace mención a la sentencia del Tribunal Supremo en la que se indica que esta pretensión de aprobar subvenciones para "x" acciones de años anteriores puede carecer de cobertura legal, además de que realizándolo de esta manera se conculca el principio de publicidad y concurrencia y puede representar un trato no igualitario respecto a otros posibles beneficiarios. Por ello nuestro voto será en contra."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Gu abstenitu egingo gara, nahiz eta hemen azaltzen diren kontzeptu gehienekin ados egon, baina legegintzaldi guztia damakigu esaten hau ez dela funtzionatzeko prozedura egokia, inprobisazio eta planifikazio eskasaren beste adibide bat besterik ez delako."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Bioi erantzute aldera eta ikastetxeen dirulaguntzei dagokionez esan 2019 eta 2020an dirulaguntza modura emateko partida aurreikusten dela, ikastetxe hauei historikoki eman zaizkien dirulaguntza batzuk direlako. 2018ko lege baten ondorioz, 2019an teknikariaren txostena izan genuen eta nolabait ere esaten zen, ordurarte justifikatu zituzten dirulaguntzetarako partidak ezin zitezela erabili. Ikastetxeak diruz lagundu daitezke. Beste kontu bat da lehiaketa bidez izan behar duten edo zuzenean eman daitezken. Legearen ezartzen duen arau orokorra lehiaketa bidez egitea da, baina salbuespenez zuzeneko dirulaguntzak ere eman daitezke eta eskuan artean duguna kasu bat izan daiteke. 2019rako eta 2020rako aurreikusitako gastuak ez ohizko partida da. Aldaketa horien ondorioz, kosta egin da orduko irizpideak mantentzea, baina

ikastetxeekin hartu-harremanetan jarri eta orduan diruz laguntzen zituzten partida horien ekintzak burutuko dira. Idazkariaren txostenak jartzen duen bezala, behar dena da finantzatu nahi diren ekintzak udal eskumenekoak izatea. Horretarako, bi ikastetxe hauekin bide bat egin da eta justifikatu dituzte udal eskumenekoak diren ekintza horiek burutu egiten dituztela: berdintasun, hizkuntza politika eta euskararen arloan. Horiek justifikatuta ez ohizko moduan ematen dira partidak. 2012tik urtez urte ikastetxe hauei emandako dirulaguntzak dira. Hezkuntza lege berriak esango du, ikastetxeetako finantzazioa nola gelditzen de. Titularrak irakurrita ematen du hezkuntza lege berriaren arabera, ikastetxe publiko eta pribatuetako finantzazioa homogeneousatu egingo dela. Gero letra txikia ikusi beharko da, baina hau da orain arte jarraitutako dirulaguntza lerro bat, irizpide aldatetan tarteko, justifikazio horiek aldatu behar izan direnak (lehen justifikazio modura erabiltzen ziren gastuak erabiltzea, ez da posible), eta horrek egiten du gaur hau salbuespen modura, hona ekartzea. 2019 eta 2020an pendiente eta zorretan geunden dirulaguntza horiek beraiei emateko.

Zuri erantzunez, Hasier, kreditu-aldaketa figura tresna bat da eta orain tokatzen da datorren urteari begira proiektu batzuk martxan jartzeko aurreikuspenak egitea, hala nola, ibilgailu elektrikoentzat karga puntua jartzeko, plaka fotovoltaikoak jartzeko eraikin publikoetan jakin beharra izatea zenbaterainoko energia behar den, langileen ordainsariak (%1,5 gehigarri hori 2022rako adostu dena) eta beste partida batzuk ere bai.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “La nueva ley todavía no está aprobada y habrá que ver cómo recoge la financiación de todo tipo de centros. Para nosotros tal y como se presenta la propuesta, como gasto, es una sobreinversión para estos centros. Si tiramos de hemeroteca, se estuvo trabajando en el Ayuntamiento para otorgar este tipo de subvenciones, pero finalmente el texto elaborado no se llegó a aprobar. Si eramos concededores de que existía esa situación por que no se llevó a cabo?.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Dirulaguntza da eta edozein udalerako dirulaguntza gastua da eta da edozein kulturako elkarteei ematen zaion bezala. Honen kontra azalduta pentsatu nahi dut, irizpide berdina erabiliz, udal elkarteei ematen zaien laguntzaren aurka egongo zarela, ez?.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo erabakia hartu da:

1.- 16. Kreditu gehikuntzen bidez 675.267,16 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:

#### GASTUEN GEHIKUNTZA

Kap.	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	96.111,16
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	251.056,00

3	Interesak	4.000,00
4	Transferentzia arruntak	146.000,00
6	Inbertsio errealak	149.700,00
<b>GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO</b>		<b>646.867,16</b>

#### SARRERAK

Kap.	Izena	Euro
8	Finantza aktiboak	646.867,16
<b>FINANTZIAZIOA</b>		<b>646.867,16</b>

2.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hasiera batean onartzea, bertan espediente honen helburu ondorengo partidak handituz edota txertatuz: 0241.481.330.00.03, 0241.481.323.40.01 eta 0241.481.323.50.03.

3.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

#### b.- TAXIAK. TARIFAK EGUNERATZEA. 2022EKBO0102

Ezagutzera eman Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“GAIA.- *Taxi-zerbitzuaren 2023ko tarifak.*

*(AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, Goiekiren bidez, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikatzeko 2023 urterako tarifen onspena eskatu du.*

*Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:*

Lehenik.- *Gipuzkoako Taxisten Elkarteak proposatutako kostuen estudioaren onspena.*

Bigarren.- *Goierriko eskualdeko eremuan aplikagarri izango diren Agitaxek Goiekiren bidez proposatutako 2023rako ondorengo tarifen onspena, indarrean daudenekiko % 10,3ko igoerarekin.*

<b>TARIFA URBANA 2.023</b>			
<b>2023ko HIRI BARRUKO TARIFA</b>			
	<b>Abiasaria /Bajada</b> <i>de bandera</i>	<b>Ibilitako kilometroa</b> <i>Kilómetro recorrido</i>	<b>Itxarote ordua</b> <i>Hora de espera</i>
<b>Tarifa 1*</b>	4,1288 €	1,2926 €	24,6886 €
<b>Tarifa 2**</b>	4,1288 €	2,0615 €	38,8025 €

\* Lanegunetan 07:00tik 22:00arte / Laborables: de 07:00 a 22:00

\*\* **Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larubatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan / Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre.**

Hirugarren.- *Goiekiri akordio honen berri ematea.*"

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Sabemos cuál es la situación a día de hoy y la carestía que han sufrido la gasolina, etc. Parecen palabras mayores una subida de esta índole, pero entendemos que no es para enriquecer ningún tipo de bolsillo, sino para poder sufragar los gastos del servicio. Votamos a favor."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Horrela onartuko dugu, baina batzordean ere komentatu genuen igoera potente baten aurrean gaudela (justifikatua izango da, ez dut zalantzan jartzen), bai herritarrentzat eta batia ere sektorearentzat, ikusita gaur egun garraio publikoak nolako hobariak dituen. Alde bozkatu dugu, nahiz eta egiteke egon eskualde mailako foroa osatzea, sektorea, udalek eta Goiekik ere parte hartuko dutena. Ea hurrengo legegintzaldian zerbait egiteko moduan gauden."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Bai, azken finean igoera altu honek oinarria du barrenean dagoen hitzarmen batean eta hitzarmen hori KPI gehi gehikuntza bat aplikatzen du eta abuztutik abuztura aplikatu beharreko KPI 8tik gora izanik, hau da ematen duen emaitza. Horrek ez du esan nahi taxistek ere energia edo gasolina-kostuaren igoera edukiko ez zutenik. Iaz, pleno honetatik pasa ondoren, GOIEKIn izan ginan, jakiteko zein zen funtzionamendua eta elkarlanean aritzea egokia litzateke, ikuspegi guztiak ezagutarazteko."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez onartu da proposamena.

c.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA. KUDEAKETA-GOMENDIOA, BEASAINGO UDALAREN DIRU-SARRERAK PUBLIKOKOAK BETEARAZPENEAN BILTZEKO. 2022EKBO0085

Ezagutzera eman da Antolakuntza Batzordearen proposamena, hau da:

**“Gaia.-** *Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beasaingo Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko*

*Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 2.2 artikuluan xedatzen duenez, aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributuetan eta zenbatekoak kobratzeko, ogasun horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako lege ezarritan dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.*

*Halaber, aipatu Foru Arauak 8 artikuluan dio Udalak eta Foru Diputazioa lankidetzan arituko direla hitzarmen egokia izenpetuz tributuen kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari dagozkien guztietan.*

*Bere aldetik, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duenak, 3.3 artikuluan xedatzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko zergabilketa organoek beren gain hartu ahal izango dute beste herri administrazio batzuen diruen bilketaren kudeaketa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren hitzarmenen bitartez.*

*Araudi horren babesean, Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30eko bileran erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta interesatuta dagoen Udal bakoitzaren artean sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmenaren eredu onartzea, hain zuzen, Udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko.*

*Horrenbestez, aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesgarritzat jotzen duenez, Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari honako hau aurkezten du iritzia eman dezan*

#### P R O P O S A M E N A

*LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30ean onartutako lankidetzaz hitzarmena sinatzea. Hitzarmen horren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko du Udalak. mandatu gisa ezartzen dizkion zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko ardura.*

*BIGARRENA: Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Beasaingo Udalaren izenean eta ordezkarietan sinatu dezan.*

*HIRUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagozkion ziurtagiria eginez.”*

Proposamenaz gain Alkate andreak ondorengo esan du: “Beasaingo udalaren kasuan sarrera publikoen %95etik gora borondatezko epean kobratzen dugu eta ondoren exekutiban kobratzen ditugunekin lotuta, kasurik gehienetan zerga eta sarrera publiko gehienetan %98tik gora da, hemen udal baliabideekin kobratzen dena, Beasaingo

udalak eskaintzen dituen zerbitzuen esker. Fase eta tramite ezberdinak agortzen direnean, ordea, eta ezinezkotzat jotzen denean sarrerak jaso ahal izateko planteatzen dugu hitzarmen honen sinadura. Hitzarmen honen sinadurak, besteak beste, honako abantailak ekarriko dizkio Beasaingo Udalari: banku konturik ez dituzten zergadunen zorrak kobratu ahal izateko aukera, gure baliabideekin konturik ezean, zaila gertatzen zaigulako edota lanbide arteko gutxieneko soldata eta nominarik ez izateagatik, soldata eta pentsioa ezin zaienei bahitu, zorra kobratzea ahalbidetzen du. Zorrak Aldundira bidali eta hauek PFEZ edo BEZren aldeko kanpainetan deklarazioak badituzte, Foru Aldundiak baliatu ditzake saldo positibo horiek udalarekin duen zorra ordaindu ahal izateko. Horrenbestez aipatu hitzarmena udalak interesgarritzat jotzen duenez, Antolakuntza batzordeak aipatutako proposamena egin dio Udalbatzari.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritziz hauek azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Entendemos que este convenio lo que busca es mejorar la recaudación ejecutiva del Ayuntamiento, que se llevaría a cabo en los casos de último recurso y que permitirá al departamento de recaudación un poco de respiro. Creemos que es positivo y por ello estamos de acuerdo.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Gu ere bai. Osagarri bezala proposatzen da. Batzordean oso ondo azaldu zitzaigun eta Alkateak era ideia nagusia azaldu ditu. Dena dela uste dugu, eta horrela gogoratu genuen batzordean, arlo horrek gabeziak dituela pertsonalaren aldetik eta eskatzen duguna da lanpostu horiek betetzeko behar diren izapideak egitea.”

Alkate andreak ( EAJ-PNV): “Zergabilketa zerbitzua udalaren eskumena da. Plantilan onartuta dauden postuak beteta daude modu interinoan eta ez modu egonkorrean. Guretzat bada lehentasuna departamendua egonkortzea eta horretarako lehenik eta behin teknikariaren kontratazioarekin hasi beharko genuke, hasi eta bukatu zen eta hutsik geratu zena. Ezinbestekoa jotzen dugu teknikari horren figura, azkenean berak ere departamentua bere modura antolatu dezan. Lehentasun bezala hartzen dugu eta datozen hilabetetan, espero hori aurrera eramatea.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez onartu da ondorengo hitzarmena Foru Aldundiarekin sinatzea:

**“GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, UDALAK BEREZKOAK DITUEN ZUZENBIDE PUBLIKOKO SARRERAK BIDE EXEKUTIBOAN BILTZEKO**

#### **HONAKO HAUEK BILDURIK**

Alde batetik, Jokin Perona Lerchundi jauna, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua eta, bestetik, Leire Artola Ugalde andrea, Beasaingo Udaleko alkatea.

#### **ADIERAZTEN DUTE**

Udalerriak lurralde-antolaketa oinarriko erakundeak dira, bai eta herritarrek herri-arazoetan esku hartzeko hurbileneko bidea ere, eta bertako giza taldeen berezko interesak autonomiaz kudeatzen dituzte.

## I

Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izen eta kontura, foru zerga sistema eraginkortasunez aplikatzea eta, oro har, beste herri administrazio eta ente batzuen zuzenbide publikoko baliabideak ere, horiek kudeatzeko ardua legez edo hitzarmen bidez bere gain uzten zaionean. Hitzarmen hau dela medio, Gipuzkoako Foru Aldundiak zergabilketaren kudeaketarako dituen informazioa eta baliabide teknikoak udalerriaren esku jartzen dira.

## II

Herri administrazioen arteko harremanetan elkar laguntzak printzipio gidaria izan behar duela aintzat harturik, eta 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 140 artikuluan ezarritakoan oinarriturik, bi aldeek uste dute, zein bere helburuak betetze aldera, oso onuragarri izan daitekeela lankidetzaren sistema egonkor bat ezartzea zergabilketaren kudeaketan.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 2.2 artikuluan xedatzen duenez, *aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, ogasun horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako legez ezarrita dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.*

Era berean, 8. artikulua dio *“Udalak eta Foru Aldundia lankidetzan arituko direla hitzarmen egokia izenpetuz tributuak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeari dagokion guztian.”*

Bestalde, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak, 3.3 artikuluan jasotzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko organoek beste herri administrazio batzuen baliabideak biltzeko kudeaketa hartu dezakete beren gain, hitzarmenak formalizatuta eta horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Erregelamendu horrek berak gero 5. artikuluan dio tokiko entitateak arduratuko direla zorrak biltzeaz, eta honelaxe bilduko dutela: a) entitateek beraiek zuzenean edo, b) zorren esparruko beste lurralde ente batzuek, haiekin hitzarmena formalizatu bada edo ahalmen horren eskuorde eman bazaie.

Azaldutako guztia kontuan hartuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Beasaingo Udalak ERABAKITZEN DUTE lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea honako oinarri jarraituz.

### OINARRIAK:

Lehena. Hitzarmenaren xedea eta erregimen juridikoa.

Hitzarmen honek baldintzak eta prozedura ezartzen ditu Udal izenpetzailearen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko jarduketak Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain har ditzan Ogasun eta Finantza Departamentuaren bitartez.

Jarduketa horiek arautzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamendua.
- b) Hitzarmen honen oinarriak.
- c) Aplikagarri diren gainerako arauak.

Bigarrena. Aplikazio eremua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren bitartez, Udal izenpetzailearen zuzenbide publikoko sarreren bilketa exekutibo bere gain hartu ondoren, Hitzarmen hau Gipuzkoako Lurralde Historikoan biltzekoak diren zorrei aplikatuko zaie.

Hitzarmen honetan xedatutakoa jarduera ekonomikoen gaineko zerga edo ondasun higiezinaren gaineko zerga kudeatzeko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetu dituzten hitzarmenen kaltetan gabe ulertuko da.

Hirugarrena. Jarduteko eskaera, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari zuzendua.

1. Zergabilketa exekutiboan jarduteko eskaerak Udaleko alkateak egingo ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ogasun Zuzendari Nagusiari zuzenduta. Horretarako, hitzarmen honen I. eranskinean ageri den eredia erabiliko du, eta bi ale beteko ditu. Eskaera hilean behin egingo da gehienez, eta bertan sartzen diren zorrak zenbateko nagusiari buruzkoak izango dira beti. Bidezkoa denean, zenbateko nagusiari dagokion premiamenduzko errekarua gehituko zaio.

2. Eskaerak tramitatu ahal izateko, ondoko informazioa jaso beharko dute:

- a) Zordunaren izen-abizenak edo sozietate izena, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eta helbidea.
- b) Zein likidazio sartzen diren eskaeran, bakoitzari buruz honako datuak adieraziz: kontzeptua, ekitaldia, zenbatekoa, borondatez ordaintzeko epea amaitu den eguna, eta premiamenduzko probidentzia noiz egin den.
- c) Premiamenduzko bidean biltzeko azken egintza administratiboa zein egunetan jakinarazi den, zorra ere adieraziz, hala badagokio.

3. Udalak euskarri magnetikoan bidali behar ditu zor guztiak. Euskarri magnetikoak bete behar dituen ezaugarri teknikoak hitzarmen honen II. eranskinean zehazten dira.

4. Onartua izan baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu informatikoen euskarri magnetikoa balidatuko dute, beti ere bere ezaugarriak II. eranskinean aipatzen diren zehaztasunekin bat ote datozen egiaztatuz.

Udalak bidaltzen duen euskarri magnetikoak ez baditu II. eranskinean zehazten diren beharkizun teknikoak betetzen, euskarri hori errefusatu egingo da eta udalari bueltatuko zaio.

5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan zergabilketa exekutiboaz arduratzen den organoak egin behar dituen balidazioek baldintzatuko dute euskarri magnetikoaren behin betiko onarpena.

Adierazitako datuak zuzenak ez badira, Udalak erantzungo du horrek eragin ditzakeen kalteengatik.

6. Jarduteko eskaeran sartzen diren likidazioek irmoak behar dute izan, eta ezingo dute 10 €-tik beherako zenbatekorik eduki. Jarduteko eskaera behin eginda Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak onartzen badu, Udalak ezingo du inolako jarduketarik egin bertan sartutako zorren kontra.

7. Zergabilketaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak bere gain hartu ondoren, kudeatu beharreko zorreatik Udalari egiten

zaizkion ordainketak Gipuzkoako Foru Aldundiak zergabilketarako duen kontu murriztuan sartuko dira.

Laugarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eginkizunak.

1. Jarduteko eskaera hirugarren oinarrian adierazitako beharkizunen arabera behin jaso ondoren, Ogasun eta Finantza Departamentuak Udalaren alde eramango du aurrera eskaera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamenduan araututako prozedurari jarraiki.

2. Zuzenbide publikoko sarrerak direla-eta Udalak eskatzen duen jarduketan Ogasun eta Finantza Departamentuak zeregin hauek izango ditu: premiamenduzko probidentzia jakinaraztea, bidezkoa denean, kontu bankarioak bahitzea, hirugarrenen kredituak bahitzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kredituak konpentsatzea, eta soldatak bahitzea (zigor ez-tributarioen kasuan izan ezik).

3. Hitzarmen honetan aipatzen diren zuzenbide publikoko sarreraren bilketa kudeatzeko, Ogasun eta Finantza Departamentua zuzenbide publikoko sarrera propioak eta bere organismo autonomoenak bide exekutiboan biltzeko erabiltzen duen sistema berberaz baliatuko da. Gainera, zorrak behar bezala bildu ahal izan daitezen, Departamentuak informazioa eskatuko ahal izango dio hitzarmena izenpetzen duen Udalari. Udalak ez badio informazio eskaerari hilabeteko epean erantzuten, edo agerikoa bada emandako erantzuna ez dela nahikoa gertatzen, Ogasun eta Finantza Departamentuak uko egingo dio zorren kobrantza kudeatzeari.

4. Egindako jarduketan emaitza negatiboa denean, haiekin lotuta dauden likidazioak Udalari itzuliko zaizkio. Horri begira, gehienez ere 18 hilabeteko epea ezartzen da zergabilketako organo eskudunak behar diren jarduketak egin ditzan, eta epe hori Udalak jarduteko eskaera egiten duen egunetik aurrera kontatuko da.

Bosgarrena. Okerreko sarreraren itzulketa.

Okerreko sarreraren itzulketak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak bide exekutiboan biltzeko geratu diren zorrekin zer ikusia dutenean, itzulketa horiek honela kudeatuko dira:

- a) Okerreko sarrerak jada likidatu den epealdi bati dagozkionean, administrazio titularrak itzuliko ditu, hau da, Udalak.
- b) Okerreko sarrerak likidatu gabeko epealdiari dagozkionean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak itzuliko ditu.

Seigarrena. Errekurtsoen erregimena.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan zergabilketa exekutiboaz arduratzen den organoari dagokio hitzarmen honen xede diren jarduketan aurka aurkezten diren errekurtsuak bide administratiboan ezagutu eta ebaztea.

2. Auzia ebazteko aplikatu beharreko araudia errekurritutako zergabilketa jarduketari lotutako likidazioak nolako izaera duen, eta hari dagokiona aplikatuko da.

3. Premiamenduzko prozedura administratiboa errekurtsuak aurkezteagatik eteteko, kasuan kasuko prozedura arau aplikagarriei jarraituko zaie. Horrelakoetan, Udalak

berehala jakinarazi beharko dio hori dena Gipuzkoako Foru Aldundiko zergabilketa organoari.

Zazpigarrena. Zerbitzuaren kostua.

Zerbitzuagatik Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu behar dion kostua zergabilketa gordinaren %10ekoa izango da.

Zortzigarrena. Likidazioak egitea eta udalei fondoak transferitzea.

Hiru hilean behin Ogasun eta Finantza Departamentuak hitzarmen honen xede diren jarduketan emaitza jakinaraziko dio Udalari, eta horretarako III. eranskinean ageri den eredua erabiliko du.

Era berean, hiru hilean behin, aurreko hiruhilekoan bildutakoa likidatuko du, zazpigarren oinarrian aipatzen den zerbitzuaren kostua zenbateko horretatik kenduz.

Informazio horri kasu bakoitzean bidezkoa den dokumentazioa erantsiko da.

Bederatzigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik, urte bereko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, eta bere epemuga iritsi baino gutxienez bi hilabete lehenago bi aldeetako batek ez badu haren amaiera espresuki gaztigitzen, luzatutzat joko da zuzenean urtez urteko epe jarraituetan.

Eta azaldutakoarekin ados daudela frogatzeko, bi aldeek goiburuan ageri den tokian eta egunean sinatzen dute hitzarmena.”

d.- ORDENANTZA FISKALAK, 2023. URTERAKO. 2022APTF0002

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena, hau da:

*Lehenik.- Ondorengo proposamenak onartzea:*

#### 2023 URTEA

#### 1.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO TASAK

##### a) Zaborrak bildu eta ezabatzeko zerbitzua

a.1)“Industrietako zaborrak” epigrafeko Tailer eta fabrikei buruzko tasak aldatzea, ondorengo kopuruetan finkatuz:

*Tailer eta industriren kasuan, tarifek hondakinen sorrera hartuko dute kontuan, eta Sasieta Mankomunitateak erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusaren edukiontzien kopuruaren eta edukieraren arabera kalkulatu dira:*

- *Erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusarentzako 360 litroko edukiontzi bakoitzeko: 775 €/urte.*
- *Erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusarentzako 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko: 1.000 €/urte.*

- Errefusa-edukiontzirik ez duten erabiltzaileak baina Sasieta Mankomunitateak beste bilketa-zerbitzu batzuk ematen dizkienak. Gutxienerako tarifa: 775 €/urte.

Garaje kolektiborako eta abeltzaintzako ustiapenerako (ukuilua) tarifak ez dira aldatzen.

a.2)Tasa aplikatzeko arauetan honako zehaztapen hau ezartzea:

“Jabetza horizontalaren konfigurazioa gauzaturik ez duten etxebizitza,, merkataritza-lokal edota garajeen eraikinen kasuan ere, horietako bakoitzeko tasa sortuko da.”

b) Udal ondasun jakin batzuren erabilera eta erabilpena

Liburutegian interneterako sarbidea duten ordenagailuen erabilpenarengatiko tasa ezabatzea, inprimatutako orri bakoitzeko tasa mantenduz.

c) Dokumentuak onartu eta ematea

A4 eta A3 neurriko fotokopien prezioa aldatzea, ondorengoan ezarriz:

A4.....0,10 €

A3.....0,15 €

d) Obra eta lehen okupazio lizentziak.

Ondorengoa zehazten duen 3. Aplikazi Araua bertan behar uztea:

“3.- (On Line) Sistema informatikoaren bidez izapide guztiak egiten diren obra eskariei (eraikin egoiliarak edota industrialak, obra berriak edo berrikuntza osoak izan ezik) dagokien tasa %20 murriztuko zaie, modu arruntan izapidetutako lizentziei dagokien tasarekiko. (Izapide guztiak esaten denean, prozesuan dokumentazioa paperean aurkeztu edo eskatzen bada, interesatuak EZ duela tasaren murrizpenik izango, adierazi nahi da.”

e) Azterketa eskubideagatiko tasa

Azterketa eskubideagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskala onartzea (I. eranskina).

2.- ERAIKUNTZA, OBRA ETA INSTALAZIOEN GAINKO ZERGA

Eguzki-energiaren aprobetxamendu termikorako edo elektrikorako sistemak dituzten instalazio, eraikuntza edo obren aldeko hobaria aldatzea, autoekoizpenaren kasuetan haren aplikaziorako aukera gehituz, eta ondorioz honela adierazita geratuz:

“c) %95eko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektriko ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira autokontsumoari edo autoekoizpenari begira. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea eta instalazioa borondatezkoa izatea eta ez araudiak hala behartutakoa.”

## MAHAI ETA AULKIEKIN UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAN HOBARIA

1/2022 Foru Arauak, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituenak, bere zazpigarren xedapen gehigarrian ondorengoa xedatzen du:

“2022an zehar, toki entitateek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Entitateei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak II. Tituluaren III. Kapituluaren 3. sekzioan jasotakoari jarraituz ezarrita dauden udal tasen zenbatekoaren gainean.

Hobari horiek COVID-19aren osasun krisiaren ondorio izan beharko dute, eta krisiak bereziki eragindako kolektiboek aplikatu ahal izango zaizkie.

Artikulu honetan aipatutako hobarien ondorioek 2022ko urtarrilaren 1era arte izaten ahalko dute atzeraeragina.”

Azaldutakoaren arabera, ondorengoa proposatzen da:

2022ko ekitaldirako, %50eko hobaria ezartzea aipatutako okupaziorako lizentzia duten jardueren titularrei, jarduera horiek mugatuak izan baitira, Covid 19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz. Hobaria ofizioz aplikatuko zaie bide publikoa mahai eta aulkiekin okupatzeko lizentzien titular guztiei.

Bigarren.- Hartutako erabakia G.A.O.ean, udal iragarkien taulan eta Lurralde Historikoko zabalkuntza handieneko egunkari batean argitaratuko da, jendaurrean egongo delarik 30 laneguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabakiak behin betiko onartutzat joko dira, eta testu osoa G.A.O.ean argitaratuko da, azterketa-eskubideagatiko tasen kasuan behin betiko onespenez erabakia argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jartzeko; 2023ko urtarrilaren 1ean, ekitaldi horri buruzko gainerako erabakiei dagokienez; eta 2022ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginarekin, 2022rako tasa aldatzeari buruzko erabakia.

Epe horretan erreklamazioak aurkeztutako balira Udalbatzak ebatzi beharko lituzke.

### I. ERANSKINA / ANEXO I

#### AZTERKETA ESKUBIDEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

##### I.- OINARRIA ETA IZAERA.

###### 1. artikulua.-

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua emandako ahalmenez baliatuz, eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 15.etik 19.era bitarteko artikuluetan eta testu bategin horren 20.etik 27.era eta 57. artikulua eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 20.etik 27.era bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, Beasaingo Udalak Zerga Ordenantza honek arautuko duen azterketa-eskubideagatiko tasa ezartzen du.

## II.- ZERGAPEKO EGITATEA.

### 2. artikulua.-

Tasaren zergapeko egitatea honako hau da: lehiaketa, oposizio eta lehiaketa-oposizioetara hautagai gisa aurkezteko eskabidea, udal honek deitzen duena, funtzionarioen edo lan-kontratuko langileen plaza hutsik jabetzan edo behinekotan betetzeko.

## III.- SUBJEKTU PASIBOA.

### 3. artikulua.-

Subjektu pasiboak, zergadun gisa, Udalak deitutako hautaketa-prozesuetan eta lanpostuak betetzeko prozesuetan hautagai gisa aurkezten diren pertsona fisikoak dira.

## IV.- ZERGA KUOTA.

### 4. artikulua.-

Oposiziogile edo lehiakide bakoitzak ordaindu beharreko kuotak bete beharreko plazari dagokion taldearen arabera zehazten dira, epigrafe eta eskala hauen arabera:

.- Txanda irekiko edo barne-sustapeneko hautaprobetarako azterketa-eskubideak.

#### KUOTAK

7/2007	LEGEAREN	A1	AZPITALDEA.....	25,00	euro.
7/2007	LEGEAREN	A2	AZPITALDEA.....	20,00	euro.
C1	TALDEA,	7/2007	LEGEA.....	15,00	euro.
C2	TALDEA,	7/2007	LEGEA.....	15,00	euro.
E taldea 7/2007 LEGEA, LANBIDE NEKAZARITZAK.....				10,00	euro.

## V.- SORTZAPENA

### 5. artikulua.-

Dagokion espedientea osatzen laguntzeko betebeharra ezartzen du, eta ez da bidezkoa eskubide horiek itzultzea, eskatzailea edozein arrazoiengatik lehiaketatik, oposaketatik edo oposizio-lehiaketatik kanpo uzten badute ere.

## VI.- LIKIDAZIOA ETA SARRERA.-

### 6. artikulua.-

Eskabideak aurkezteko epearen barruan egingo da ordainketa, dagokion deialdian zehazten den moduan eta lekuan.

## VII. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

### 7. artikulua.

*Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legean eta horrekin bat datozen gainerako arauetan ezarritakoaren arabera familia ugariko kide diren subjektu pasiboek hobari bat izango dute tasa horretan, honako baldintza hauetan:*

*a) Kategoria orokorreko familia ugariak: % 50.*

*b) Kategoria bereziko familia ugariak: % 100.*

*Hobari hori aplikatzeko, subjektu pasiboak indarrean dagoen familia ugariaren txartelaren ziurtagiria edo fotokopia aurkeztu beharko du, organo eskudunak emana.*

### *Xedapen gehigarria*

*Zerga Ordenantza honetako araudia, arrazoi sistematikoengatik indarrean dagoen legeriaren eta beste garapen-arau batzuen alderdiak erreproduzitzen dituztenak, automatikoki aldatzen edo ordeztan direla ulertuko da, dauzkaten lege- eta erregelamendu-araudien aldaketa erreproduzitzen den unean.*

### *Azken xedapena*

*Ordenantza fiskal hau behin betiko onespren-erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatu edo indargabetu arte."*

Jarraian Alkate andreak (EAJ-PNV) ondorengo adierazi du: "Denok dakigu egun bizi dugun ezegonkortasun egoera, batetik KPI indizea 2022. urterako %9 inguruan bukatzea aurreikusten da. Energia gastuak bikoiztu eta kasuren batean ere hirukoiztu egin dira eta interesek ere gora egin dute azken hilabeteetan, maileguetan eragina izanik. Hori modu orokorrean zertzelada batzuk esate arren. Gure herrira etorriaz eta lehen esan dudan moduan, borondatezko epean eta exekutiban sarrera publikoen bidez kobratzen diren portzentaiak oso altuak dira eta zerga, tasa eta prezio publiko bitartez Beasaingo udalak diru-sarreraren bere aurrekontuen %36° jasotzen du herritarrengandik, gutxi gorabehera. Gainontzekoa ehin handi batean udal finantzaketarako Foru funtsetik jasotzen du. Datorren urterako, 2023rako, Foru funtsetik %7,3ko igoera izatea aurreikusten da, Gipuzkoak izan duen errekaudazio eta bilketaren ondorioz. Komentatu, Beasaingo udalak ez duela zor bizirik eta egoera ekonomikoa ona eta saneatutakoa dela. Hori guztia kontuan hartuta Antolakuntza batzordetik hartzen den proposamena da, zerga eta prezio publikoak orokorrean izoztea. Ez da inolako igoerarik egongo, baina bai egongo dira aldaketa batzuk egungo egoerara egokitzeo beharrezkoak direnak, hain zuzen ere, aipatutako proposamenean azaltzen direnak."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros propusimos congelar las tasas de manera generalizada y mejorar las bonificaciones en el ICIO, en tema de mejoras energéticas. Lo propuesto recoge esos puntos y en consecuencia, estamos de acuerdo con el texto.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Ordenantza fiskalak onartzeko garaian momentuan dugun egoera ekonomikoa aintzakotzat hartzeaz gain, kontuan hartu beharrean gaude egoera horrek herritarrengan sortzen dituen ezberdintasunak. Datuak daude. Gehien duenak orain gehiago du eta gutxiago duenak orain gutxiago du. Datuak publikoa eta ezagunak dira. Ordenantza fiskalak erremienta bat izan beharko lukete arrakala horiek gutxitzeko eta zentzu horretan iruditzen zaigu eskasak geratzen direla. EH Bilduk zerga progresiboaren alde egiten du eta aldiz Beasainen “*tabla rasa*” egiten da, zeren eta egoera larrian daudenak kenduta berdin tratatzen dira eta zergak berdin eragiten die. Gure ustez ekitatibogoak izateko aukerak badaude. Zerga bidez ez bada, hobari bidez. Beasainen, ez bat eta ez bestea ez da egiten. Norabide horretan hainbat proposamen egin ditugu. Alde batetik, hobari progresiboak aplikatzea dauden taulen arabera. Etxebizitza politikan ere proposamen pare bat egin ditugu: 2. Etxebizitzei erreargua jartzea (hainbat herritan dagoena), eta alokairuan ateratzen diren etxebizitzei hobari bat planteatzeko aukera, etxebizitza-parkea handitze eta herritarren etxebizitzak alokairuan eskuratze aldera. Sorkuntzaren arabera, zabor tasetan proposamenak egin genituen. Aurrena Sasietarekin bilera egin genuen eta pauso interesgarria ematen dela uste dugu. Aurrera begira, epe motzera, auto konpostaren inguruan erabaki batzuk hartzeko aukera ere egongo da lege berria onartzen denean. Konpromiso hori erakutsi zen eta positiboki baloratzen dugu. Erregaietik hobia autoetan CO2 isurketaren arabera. Hauen guztien gainean beste herrietako adibideak jarri ziren. Genero ikuspegiarena ere bai, nahiz eta abstraktuagoa izan. Bartzelonan martxan jarri zuten eta helburua da tasa eta zergak nola eragiten duten genero ikuspegitik. Horrek emango luke beste argazki bat. Planteamendu horrek aukera emango lukeela azterketa bat egiteko eta behintzat ezagutzeko bide bat ezarri. Gure planteamendu gehienak ez dira jaso, baina egia dena da herritarren poltsikoak nahiko zigortuak daudela eta izoztearen aurka ez dugula bozkatuko, baina ordenantza hauekin aukera paregabea galtzen da herritarren artean egon daitezken arrakala horiek gutxitzeko. Gauza da, ordenantzak bakoitzaren norabide politikoa erakusten dutela. Gu abstenitu egingo gara.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Esan duzu egindako proposamen gehienak ez direla aintzakotzat hartu. Familia ugarien etxebizitzaren kasuan zuek plantatu zenuten ondasunen gaineko zerga sarrera ekonomikoaren eta balio katastralaren arabera izatea (zuek duzuen sistema progresibo horretan oinarrituta, gehiena dutenek gehiena ordaintzeko). Guk hor ikusten dugu bizi dugun erroka demografikoaren kasuan pizgarri modura ikusten dugu, izan ere, Beasaingo kasua ikusita 35 onuradun ditugu eta hau dena Hirukide familia ugarien elkartarekin landutakoa da eta bizi dugun egoera honetan diskriminazio positibo bat egin behar da familia ugari horiek edukitzearen alde, izan ere, gure gizartearen jaiotze-tasa dago dagoen moduan eta hori da bide bat. Erregaien kasuan, ibilgailu elektrikoak edo hibridoak erosten dituztenekin bezala, horrelako hobariak aplikatzea ezinbestekoa ikusten dugu. Gurea sistema progresiboa da. Esan dugu, gure aurrekontuen %55a Fofinetik dator eta Gipuzkoan %80k %20a ordaintzen dute eta %20ak (gehiena dutenek) %80a ordaintzen dute. PFEZ edo Sozietate gaineko zergaren bitartez. Etxebizitza hutsen erreargua: guk 2. Etxebizitza erreargatzeko aukera ez dugu ikusten. Kolore ezberdinetako beste adibide batzuk begiratu ditugu. 2011-2012 inguruan errearguak jarri zituztenak eta ez dutenak lortu etxebizitza horiek alokairura ateratzea. Guk, zuk esaten dituzun hobari horiek badauzkagu. Eusko

Jaurlaritzako programa bidez etxebizitzak alokatzen dituzten horiek, hobariak jasotzen dituzte. Baditugu onuradun batzuk programa horien bitartez jasotzen dituztenak. Bestalde ere, etxebizitza alokatzeagatik, gazteentzako dirulaguntza programa bat, osoko bilkura honetan onartu genuen eta eskari batzuk jasotzen ari gara. Eskaera hori eginda dago, baina txertatuta zegoen, alokairurako hobari bat bezala. Egindako hobari eskaeraren inguruan, aipatu duzunetako bat kontsumitzen duten erregaien ingurukoa da. Adibide bezala Usurbil jartzen zenuen. Pixka bat begiratu ondoren, jakin gure kasuan, iaz Usurbilek dituen baino hobari hobeak ditugula. Gure kasuan Eko etiketa dutenak %50 hobari dute eta ibilgailu elektrikoak badira %90eko hobaria dute. Usurbilen lau urtez %50. Aipatu duzun beste kontu bat, hau da, genero ikuspegiaren inguruan azterketa bat egitea, ordenantza fiskaletan jasotzeko ez da baina konpromisoa hartu genuen berdintasun planean horren inguruko azterketa bat egingo zela.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Ben Usurbil ez. Durango zen. Gure artean ere eztabaida askotan izaten dugu. Nik uste dut oraingoz behintzat ibilgailu elektrikoak ez direla edozeinentzat eskuragarriak dituzten prezioengatik. Hobariak ematen ari gara baina zalantza dut benetan behar gehiena dutenei ematen ari garen. Filosofia ere onartu dezakegu. Guk ez dugu esaten horiek kentzeko baizik eta horiei gehitzea erregai fosilen araberakoa, hau da, auto bat erosterakoan gutxiena kutsatzen dueneko aukera izateko bultzatzea. Beasainen 20.000 € edo 300.000 € kobratzen dituztenek, berdin ordaintzen dute. Ez dira diru-sarrerak kontuan izaten. Ezberdintasunak daude eta hauek izan daitezke horiek gutxitzeko.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

### **3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

**A.- BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK, SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSTOKIAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA. ALEGAZIOAK EBAZTEA ETA BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA. 2022HIBO0115**

Lurralde batzordeko proposamenaren berri eman da, hau da:

*“Gaia: Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuak erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzari buruzko behin betiko onespena.*

#### **AURREKARIAK**

1.- 2022-05-06. Udalaren web orrian argitaratzen da araudia egin aurreko kontsulta, herritarrek iradokizunak aurkeztu ahal izateko, 2022-05-27arte.

2.- Aipatutako epealdi horretan sei iradokizun aurkeztu ziren eta Lurraldeko koordinatzaileak emandako txostenaren arabera, Udalbatza Osoak 2022-06-30ean egindako bileran ondorengo erabaki zuen:

**“Lehenik. Aurkeztutako iradokizunak ebatzea osotasunean deuseztatuz.**

Bigarren. Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzari hasierako onspena ematea.

Hirugarren. Jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, GAOean iragarkia argitaratua eta adieraziz epea horretan ez bada inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkezten, Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantza behin-betiko onartua geratuko dela.”

3.- GAOen argitaratu zen iragarkia, 2022-07-13an. Alegazioak aurkezteko 30 egun balioduneko epean, 2022-08-10ean amaitzen zena, lau alegazio-idatzi aurkeztu dira.

4.- 2022-09-16an, Lurraldeko koordinatzaileak honekin batera doan txostena eman du beariekiko:

1. Zaldizurreta 9-19 jabekideek egindako iradokizunen idatziaren lehen puntuak hauxe dio:

“Terraza-instalazioaren gehieneko zabalera plazaren edo espazio librearen % 20 baino handiagoa ez izatea, lorategi apaingarriak, portikoak edo antzeko elementuak kontuan hartuta.”

Proposatutako ordenantzak honako hau ezartzen du 9. artikuluan plaza eta espazio libreetako instalazioei buruz:

- a) “Terrazaren gehieneko luzerak ezin izango du gainditu establezimenduaren aurrealdea edo plazaren edo espazio librearen erdia.
- b) Instalazioaren gehieneko zabalera ezin izango da plazaren edo espazio librearen herena baino handiagoa izan, lorategi apaingarriak, portikoak edo antzeko elementuak kontuan hartuta. Baimendutako gehieneko zabalerraren herena osatzeko, ez da onartuko terraza eteneko eremurik.”

Plaza eta espazio libreetan espazio publikoa modu pribatiboan erabiltzeko muga horiek proportzionatuz eta nahikotzat jotzen dira plaza eta espazio horien erabilera publikorako geratzen den espazioarekiko, kontuan hartuta horiek zenbatzeko ez direla kontuan hartu behar egon daitezkeen lorategi apaingarriak.

Lehen esandako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen.

2. Zaldizurreta 9-19 jabekideek egindako iradokizunen idatziaren lehen puntuak hauxe dio:

“Terrazak okupatu beharreko espazioa zoruaren perimetroan markatuta egotea. Tabernatik aulki gehiago ateratzeko eta ezarritakoei eransteko pikareska saihesteko, horrela pertsona gehiago elkartzeko, eta izendatutakoak baino espazio handiagoa hartzen joateko. Era berean, mahai eta aulki altuak arkupeetako zutabeen artean jartzea saihestuko litzateke.”

Proposatutako ordenantzak 14. artikuluan (Ebazpena) 3. atalean ezartzen duenez, lizentziarekin batera terrazaren eta elementu osagarrien kokapenaren baldintzak eta xehetasunak deskribatzen dituen plano bat entregatuko da, eta dokumentu hori ikusgarri egongo da ikuskatzaileen eskura. Era berean, 20. artikuluan (Instalazioaren titularraren betebeharrak) ezartzen denez, titularrak establezimenduaren fatxadari erantsi behar du Udalak baimenarekin batera emandako terraza baimenduaren planoak. Terrazaren kokapena baimenari erantsitako planoan zehazten bada ere, eta plano hori fatxadari ikuskatzaileen eskura egon behar bada ere, kasu jakin batzuetan beharrezkoa eta osagarria izan daiteke terrazaren eremua birlandatzea eta markatzea, hura behar bezala mugatzeko eta kontrolatzeko.

Azaldutako arrazoiengatik, egindako eskaera onesten da, eta 14. artikuluan (Ebazpena) honako atal hau gaineratzen da:

*“Egokitzat jotzen den kasuetan, Udalak bide publikoan terrazaren instalazioen eremuak mugatzeko beharrezkoak diren markaketa- eta zuinketa-elementuak instalatu ahal izango ditu.”*

- 3.** Zaldizurretako 9-19ko jabeen erkidegoak egindako iradokizun-idazkiaren hirugarren puntuaren azalpena. Honako hau dio:

*“Ixteko ordutegia ez etortzea bat zerbitzuarekin, terrazaren erabilerarekin baizik.”*

Horri dagokionez, nabarmendu behar da ostalaritza-establezimenduen ordutegia Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan jasotzen eta arautzen dela, eta ostalaritza-establezimenduaren kategoriaren arabera aldatzen direla. Terraza-instalazioetarako baimendutako ordutegia, ordea, ordenantzaren 18. artikuluan jasotzen da, eta establezimenduaren funtzionamendu-ordutegia baino murriztaileagoa da.

Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen ordenantzan sartuta dagoela ulertzen delako.

- 4.** Zaldizurretako (9-19) jabeen erkidegoak egindako iradokizun-idazkiaren laugarren puntuaren azalpena. Honako hau dio:

*“Jarritako eta bildutako aulkien kopurua baimendutakoa baino handiagoa ez izatea.”*

Horri dagokionez, 20. artikulua honako hau ezartzen du instalazioaren titularraren betebeharreran: *Debekatuta dago lokaletik kanpo baimendutakoa baino altzari gehiago pilatzea. Lizentzian berariaz baimendutako materiala bakarrik eduki ahal izango da bide publikoan.*

Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen ordenantzan sartuta dagoela ulertzen delako.

- 5.** Zaldizurretako (9-19) jabeen erkidegoak egindako iradokizun-idazkiaren bosgarren puntuaren azalpena. Honako hau dio:

*“Mahai altuen eta aulkien kopurua ez litzateke izan behar establezimendu bakoitzeko 2/4 baino gehiago.”*

Ordenantza honek terrazen eta haien elementu osagarrien ezaugarri teknikoak arautzen ditu, bai eta terrazen lerrokadurak eta gehieneko azalerak zehazteko baldintzen erregulazioa ere, kokapenaren eta ezaugarrien arabera. Ez da uste mahai garaiek kalte handiagoa eragiten dutenik beheko mahaiek baino, baldin eta baimendutako lerrokadurak eta gehieneko azalerak betetzen badira. Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen terraza-instalazio bakoitzeko gehieneko mahai altuen kopurua topatzea.

Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen.

- 6.** Zaldizurretako (9-19) jabeen erkidegoak egindako iradokizun-idazkiaren seigarren puntuaren azalpena. Honako hau dio:

*“Arauk behar bezala betetzeko polizia-zaintza areagotzea. Bizilagunek uste dugu alderdi hori falta dela.”*

Ordenantza-proposamenaren helburu bakarra da bide publikoan terrazak eta salgai dauden produktuen erakustokiak jartzeko irizpideak ezartzea, eta polizia-zaintzaren maiztasuna eta antzeko gaiak arautzea ez da ordenantzaren eskumena.

*Beraz, eskaera ez da onartzen ordenantza honen xedea ez delako.*

**7. A. Roman Gomezek egindako iradokizun-idazkiaren lehen puntuaren azalpena.**

*Honako hau dio:*

*“ 8.artikuluako, 3.puntua: Kale nagusiko negoziotan terraza jartzeko aukera kolokan jartzen da puntu honekin. “*

*Aurreproiektuaren 8. artikuluko 3. paragrafoak ezarri duenez, oinezkoen dentsitatearen edo beste arrazoi batzuen arabera, terraza urrundu egingo da, eta oinezkoak fatxadaren ondotik igaro ahal izango dira. Paragrafo horrek honako aukera hau baino ez du jasotzen: egoera jakin batzuetan, terraza fatxadatik urrun jarri ahal izatea, fatxadaren ondoko pasabidea ahalbidetuz eta establezimenduaren fatxadatik urrun dagoen terraza instalatuz. Aukera hori jasotzeak ez du esan nahi Kale Nagusi osoan aplikatu behar denik eta kale horretan instalatzea eragozten duenik.*

*Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen.*

**8. A. Roman Gomezek egindako iradokizun-idazkiaren bigarren puntuaren azalpena.**

*Honako hau dio:*

*“ 10.artikulua, E puntua: Bertan jartzen duen toldo lateralaren altuera ez da bideragarria eguraldi txarra egiten duen egunetan. Mahai guztiak bustitzen dira eta kalefazioetako beroak alde egiten du, nahiz eta lateralak jarrita izan.”*

*10. artikuluan alboko toldoetarako zehaztutako altuera 1,50 m-koa da. Altuera hori nahikotzat jotzen da kontsumitzailea haizearen eta euriaren aurrean eraginkortasunez babesteko, bai eta terraza-instalazioaren aireztapen egokia bermatzeko ere.*

*Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen.*

**9. A. Roman Gomezek egindako iradokizun-idazkiaren hirugarren puntuaren azalpena.**

*Honako hau dio:*

*“18. artikulua: Taberna 8etako irikita izateko, terraza lehenago ipini behar da.”*

*Ordenantzaren 18. artikulua terrazak instalatzeko baimendutako ordutegia aipatzen du, eta 8: 00etatik aurrera instalatu ahal izango dira. Ordenantza honek ez du arautzen establezimendua irekitzeko ordutegia, zeina Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera arautzen baita, eta, ondorioz, ostalaritza-establezimenduak goizeko 8: 00ak baino lehen has daitezke jardueran. Beraz, ez dago inolako kontraesanik terrazak instalatzeko ordutegiaren eta ostalaritza-jardueretarako baimendutako ordutegiaren artean.*

*Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen.*

**10. A. Roman Gomezek egindako iradokizun-idazkiaren laugarren puntuaren azalpena.**

*Honako hau dio:*

*“19. Artikulua, 2.puntua: Bideluze plazan jarri daitezkeen mahai altu, taburete eta sonbrillak, plaza bertako iskin batean jasotzeko aukera egon dadin eskatzen dugu.”*

Horri dagokionez, ordenantzaren 19. artikulua irizpide orokor gisa honako hau ezartzen du: "Lokalaren barruan jaso ezin diren elementuak establezimenduaren fatxadaren kontra jaso beharko dira, modu ordenatuan, kontzentratuan eta kateatuan. Nolanahi ere, zutik dauden berogailuak establezimenduaren barruan jaso beharko dira." Irizpide hori nahikoa zehaztuzat jotzen da establezimenduaren barruan biltegiak ezin diren elementuak soilik pilatu ahal izateko establezimenduaren fatxadaren kontra, modu ordenatuan, kontzentratuan eta kateatuan.

Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen.

**11. Berasategik egindako iradokizunen idatziaren lehen puntuan hauxe dio:**

"Beasaingo zarata-mapa iraungita dago. Berrikustea abiapuntu egokia izan daiteke."

Ordenantza-proposamenaren helburu bakarra da bide publikoan terrazak eta salgai dauden produktuen erakustokiak jartzeko irizpideak ezartzea, eta Beasaingo udalerriko zarata-mapa egitea edo berrikustea ez da Ordenantzaren eskumena.

Beraz, eskaera ez da onartzen ordenantza honen xedea ez delako.

**12. A. Berasategik egindako iradokizunen idatziaren lehen puntuan hauxe dio:**

"Udalbatzak ebazten duen moduan, pertsonen osasuna ordenantzako 20. artikulua menpe uztea arduragabekeria iruditzen zait, Horregatik ordutegien azterketa eta berrikuspen bat beharrezkoa dela uste dut, muga gaueko 23:00-etan ezarriz. Bizilagunon atsedeen eskubideak eta gure bizilekuen duintasun eta bortxaezinak ez dute ordutegirik, berdina izan behar dute aste-egun edo astebukaeran, udan zein neguan."

Eskaerak proposatzen du terrazaren gaueko muga gaueko 23:00etan ezartzea. Era berean, adierazi du terrazaren funtzionamendu-ordutegia ez dela aldatu behar urteko garaia eta jaiegunen edo lanegunen arabera. Horri dagokionez, nabarmendu behar da Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak ostalaritza-jardueren funtzionamendurako ordutegi desberdinak ezartzen dituen bezala, urte-sasoaren eta jaiegunen edo lanegunen arabera, ordenantza honek gauza bera egiten duela funtzionamendu-ordutegi hau ezarriz:

"Ixteko ordutegi orokorra: 23:00etan.

Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 01:00etan.

Ekainaren 1etik irailaren 30era: 24:00etan.

Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 02:00etan."

Uste da terrazaren instalazioen funtzionamendu-ordutegia, ordenantza ezarritakoa, orekatua dela bizilagunek atsedeen hartzeko duten eskubideari eta herritarren aisia-ohiturei dagokienez.

Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen.

**13. Gipuzkoako Urritu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak egindako iradokizun-idazkiaren bigarren puntuaren azalpena. Honako hau dio:**

"Beharrezkotzat jotzen da terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarri batzuk instalatzeko ezaugarri tekniko komun gisa berariaz sartzeari irisgarritasun unibertsala eta diseinu unibertsalaren printzipioa aipatzen dituen atal berri bat.

Horretarako, idazketa posible bat proposatzen da. Instalatu beharreko elementuek apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baita irisgarritasunaren arloan indarrean dauden

*gainerako arauak ere. Era berean, instalatu beharreko elementuetan diseinu unibertsalaren printzipioa aplikatzea sustatuko da, pertsona guztiek erabili ahal izan ditzaten.”*

*Nabarmentzekoa da ordenantza apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen) xedatutakoarekin bat etorritz idatzi dela, zehazki, II. ERANSKINARI dagokionez. HIRI-INGURUNEKO IRISGARRITASUNARI BURUZKO BALDINTZA TEKNIKOAK.*

*68/2000 Dekretua aztertuta, dekretuan eta ordenantza honetan jasotako igarobide-zabalerak (ordenantzan ezarritako gutxienerako igarobide-zabalera 2,00 m-koa da) eta altuera libreak (ordenantzan ezarritako gutxienerako oztoporik gabeko 2.20 m-ko altuera librea) definitzeaz gain, ez dago ostalaritza-establezimendu bateko terraza instalatzeari aplikatu beharreko artikulua edo atalik.*

*Beraz, uste dugu ordenantzak apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren arabera aplikatu beharreko baldintzak jasotzen dituela (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen).*

*Lehen azaldutako arrazoiengatik eskaera ez da onartzen.*

*Ondorioz, Lurralde Batzordeak Udaltzari aurkeztu dio hurrengo erabaki-proposamena.*

*Lehenik. Aurkeztutako alegazioak ez onartzea, Ordenantzaren 14.4 puntuarekiko izan ezik (Jabetza Erkidegoak aurkeztutakoa). Azken hau onartu egiten da.*

*Bigarren. Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantzari behin betiko onespena ematea, bertan atxikiz onartutako alegazioa. Aldi berean aldatu egin da Ordenantza indarrean sartzearen data. 2023-01-01ean izango da.*

*Hirugarren. Erabaki honen berri alegazioak aurkeztu dituen ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.*

*Lauugarren. Testu osoa GAoean argitaratzea indarrean 2023-01-01ean sartu ahal izateko.”*

Jarraian Alkate andreak (EAJ-PNV) ondorengo esan du: “Ordenantza honen inguruko zertzeladak, hauek:

- Terrazaren azalera ezin izango du gainditu establezimenduaren fatxada , ondoko fatxada okupatzeko baimena eskatu ezean.
- Kasu guztietan egon litezken hiri-haltzariak kontuan hartuta gutxienez bi metroko pasabidea bermatu behar da oinezkoen joan-etorrietarako eta etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre uzteko.
- Inola ere ez dira okupatuko 4,60 metrotik gorako altuera ez duten pasabide estalitako edo arkudun etxabeak.
- Ez da terrazarik baimenduko eremura iristeko errepidea gurutzatu beharrezko den kasuetan.
- Instalazioen gehieneko zabalerak ezin izango du plazaren edo espazio librearen heren bat gainditu.
- Eguzki eta tolo mugikorren inguruan, altuerak eta baldintzak ere zehaztuta geratzen dira eta terraza eta hauen elementu osagarriak ezin izango dira zoladurara edota eraikinetako fatxadetara inguratu.

- Asmoa da urtarrilaren 1a baino lehen ostalaritzako arduradunei udalak emango die hasierako aurreikuspen batean tokatzen zaizkien terraza eta mahai kopuru aulkien plano eta proposamen bat. Horrekin ados ez balira egongo, udaletxera gerturatu beharko dute, beti ere aipatu diren baldintzak beteaz edozein aldaketa egin ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Finalmente en las alegaciones presentadas, se recogen temas que a todos nos preocupan en nuestro día a día, sobre todo porque afectan a la convivencia vecinal. Anteriormente presentamos nuestras dudas y pedimos que era necesario llevar un control real y efectivo del cumplimiento de las normas que se establecieron. Creemos que se debe de trabajar por mantener un equilibrio entre el ocio, el negocio y el bienestar de los besaindarras. Antes votamos a favor y seremos coherentes.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gu ere ados azaltzen gara ordenantzarekin, baina batzordean esanda bezala, bereziki ikusita Zaldizurretako jabeek egin dituzten alegazio gehienak erantzuten dutela beraiek duten bizikidetzaz arazoari, argi geratzen da ordenantza eta azaldu zitzaigun ordenantza honen helburua ez dela hori erregulatzea baina bai eskatuko genuke kontuan izanda hor sortzen den arazoa ez dela xamurra, plan bat egituratzea ordenantza hau betearazteko. Alkatea orain aipatu du bidaliko zaiela nolabaiteko plano bat edo, baina lehenik eskaera egin beharko dute, ez?”

Alkatea andreak (EAJ-PNV): “Errazte aldera, pentsatu dugu beraiek eskaera egin baino, indarrean urtarilean sartzen denez, gu aurreratzea eta gure proposamena bidali hemengo irizpide hauek guztiak beteaz. Beraiek konforme egongo ez balira, beraien proposamen berriak egin beharko dituzte aztertzeko.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Ordenantza jasota dagoen moduan lehenengo eskaera egin beharko lukete. Ez dakit prozedura zuzena den.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Horrela da, errazte aldera, pentsatu dugu.”

Idazkari andreak esan du lan-taldeetan esandakoaren arabera asmoa dela proposamenak bidaltzea ordenantza berriak jasotako aldaketak kontuan izanda, baina indarrean sartzen denean eskaerak aurkeztu egin beharko direla.

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Helburua lanketa bat egitea da eta bide batez praktikotasunari begira, eguneraketa bat egin nahi da. COVID garaian tabernakoek bere lokalaren fatxadaz gain beste batzuk erabili badituzte ere, lehenengo zirriborroa pasatuko zaie bakarrik lokalaren fatxada hartuta, baina sentsazioa da ostalari gehienak maximoetara joango direla. Horretarako, ordea, aldameneko lokaletako baimena izan beharko dute. Asmoa da zirriborro horrekin batera txostentxo bat atxikitzea egungo ordenantzak dakartzan aldaketen aipamena eginez.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Aipatu duzun bezala puntu konkretu batean bizikidetzaz arazoak sortu dira eta arazo horiek tabernak irekita egotearen ondorioz sortzen direnak dira. Datozen egunetan ostalariekin bilera bat egitekotan gaude, esan duzun plano horren eta ordutegien inguruan, sortzen diren bizikidetzaz arazoak murrizte aldera. Ez da erraza izaten baino...”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Ordutegiaz gain, leihoak ixtearena etab. Beraien konpromisoa ere eskatu egin behar da. Ordenantzan arau-hauste arinetan azaltzen da: “*Ordenantza honetan zehaztutako gainontzeko arauen urraketa arina burutzea.*”

Idazkari andreak esan du batzordean aipatutakoa kontuan izanda, esaldi horren erredakzioa aldatu dela, lehen zegoenarekiko, eta esan nahi duela, aipatzen diren arau-hauste arinaz gain ordenantzan jasotzen diren baldintzak urratzea ere arau-hauste arina izango dela, beti ere, urraketa maila horretakoa bada. “*Klausula residual*” delakoa izango litzateke.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez behin betiko onespena eman zaio ondorengo Ordenantzari:

“Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantza

## I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. Artikulua. Aplikazio-araudia.

Honako udal ordenantza 1985eko Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 49. eta 85. artikuluek, 1986ko Udaltzatzen Ondasunen Araudiaren 77. artikulua, Udaltzatzen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 41. artikulua eta 1955eko Udaltzatzen Zerbitzuen Araubidearen 1etik 17rako artikuluek xedatutako ahalmenen arabera eratu da.

### 2. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen helburua bide publikoan honako hauek jartzeko araubide tekniko eta juridikoa zehaztea da:

**14. Terrazak eta elementu osagarriak.**

**15. Salgai dauden produktuen erakustokiak.**

Ordenantza honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira terrazak eta horien elementu osagarriak, eta baita salmenta-produktuen erakustokiak ere, baldin eta elementu horien instalazioa asteko azokaren, azoka berezien eta antzeko beste edozein jarduera/ekitaldiren ondorio bada.

### 3. artikulua. Definizioa.

Terrazatzat joko dira udal-baimena duten ostalaritzaren alorreko jarduera baten osagarri diren mahaiak, mahai altuak, aulkiak, eguzkitako itzalkiak, fatxadako toldoak, toldo mugikorak, alboko toldoak, berogailuak eta behin-behineko instalazio mugikorren multzoak, batera edo banaka jarrita eta modu iraunkorren.

Salgai dauden produktuen erakustokitzat joko dira saltzeko produktuak erakustea helburu duten behin-behineko instalazio mugikorak, batera edo banaka jarrita eta modu iraunkorren; produktu horiek jarduera gauzatzeko udal-baimena duen merkataritza-establezimendu batek jarritakoak izan behar dute.

Terraza baten parte izan daitezkeen elementu baimenduak honakoak dira:

- Mahaiak eta aulkiak
- Mahai eta aulki altuak

- Establezimenduaren fatxadan ainguratutako toldoa
- Toldo mugikorra
- Alboko toldoa
- Berogailuak

Ordenantza honen 10. artikulua baimendutako terraza-elementu bakoitzaren ezaugarriak zehazten ditu. Kupelak eta kanpoko barrak ez dira baimenduko.

4. artikulua. Aldez aurreko lizentzia lortzeko beharra.

Aipaturiko bide publikoko instalazioek erabilera komun bereziko kategoria juridikoa dute eta, kasu bakoitzean, aldez aurreko udal baimena behar dute, Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango dena.

## II. TITULUA

### TERRAZAK BIDE PUBLIKOAN JARTZEA

5. artikulua. Instalazioa zilegi den espazioen izaera

Terrazak jartzeko baimena jabari publikoko edo erabilera publikorako eremuetarako eman ahal izango da.

Ordenantza hau, titulartasun publikoko zein pribatuko udalerriko erabilera publikoko espazio guztietan (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.) aplikagarria izango da. Erabilera publikoko baldintza hori egitatezko egoeraren arabera eta indarrean dagoen hirigintza-plangintzako zehaztapenen aplikazioaren arabera zehaztuko da.

6. artikulua. Baimenak ukatzeko arrazoiak.

Alkatetzak aukera izango du terrazak eta elementu osagarriak jartzeko baimena ez emateko, interes publikoaren mesedetan, trazatua eta kokapena direla eta, inguruko etxebizitzak 2,5 metrotik beherakoak izatean edo 3 metrora baino gutxiagora egotean, bide-segurtasun arrazoiengatik, herri-lanak, establezimendu-dentsitate handia dagoelako, nahiz hiri-paisaia edo interes publikoari eragiten dioten eta behar bezala oinarrituta dauden beste arrazoi batzuegatik.

2,5 metrotik beherako altuera, terraza jarri nahi den sestratik hasi eta establezimendutik hurbilen dagoen etxebizitzaren sestraraino neurtuko da.

Terrazaren eta etxebizitzaren sestra berdina denean edo 2,5 metrotik beherako altueran dagoenean, 3 metroko distantzia hartuko da kontuan.

7. artikulua. Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloietan jarritakoak.

1. Terrazaren azalerak ezingo du gainditu establezimenduaren eraikinaren fatxadarena, espazio-beharrengatik ondoko fatxadak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako ondoko fatxadako establezimenduen idatzizko adostasuna beharko da.
2. Kasu guztietan, egon litezkeen hiri-altzariak kontuan hartuta, gutxienez 2 metroko pasabidea bermatu beharko da oinezkoen joan-etorrietarako eta etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre uzteko.
3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza zintarri ondoan kokatu behar da eta oinezkoentzako pasabidea fatxada ondoan utzita.
4. Segurtasun arrazoiak direla eta terraza zintarri ondoan kokatu beharra badago zintarriaren eta terrazaren artean gutxienez 30 cm utzi behar dira.
5. Inola ere ez dira okupatuko, 4,60 metrotik gorako altuera ez duten bizitegi-eraikinetako edo pasabide estalietako arkupedun etxabeak.

6. Nafarroa Etorbidearen 4. eta 34. zenbakien arteko zatian, terrazaren gehieneko lerrokadura urbanizazioaren erdiko zerrendan kokatutako hiri-altzariak mugatutakoa izango da, eta hiri-altzariak kontuan hartuta gutxienez 2 metroko pasabidea bermatu beharko da.
7. Gutxienez 3 metroko zabalera ez duten espaloietan eta terraza baimentzea posible ez den eremuetan ez da baimenduko fatxadako olanak jartzea.
8. Ez da terrazarik baimenduko, terraza eremura heltzeko errepidea gurutzatzea beharrezkoa den kasuetan.
9. Establezimenduetatik hurbil egon daitezkeen espazio libreetan terrazak jartzeko eskaerak kasu bakoitzaren berezitasunaren arabera ebatziko dira. Ereku horietara iristeko errepidea gurutzatzea beharrezkoa bada, hauek ez dira hurbileko espazio publikotzat hartuko.
10. Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloietan ez da toldo mugikorrik baimenduko.

#### 8. artikulua. Oinezkoentzako kaleetako terrazak.

Oinezkoentzako kaleetan terrazak jartzeko eskaerak kasu zehatz bakoitzaren berezitasunen arabera ebatziko dira, honako muga orokor hauen arabera:

1. Terrazaren azalerak ezingo du gainditu establezimenduaren eraikinaren fatxadarena, espazio-beharrengatik ondoko fatxadak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako ondoko fatxadako establezimenduen idatzizko adostasuna beharko da.
2. Baimenak ematerakoan, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazio-beharrak hartuko dira kontuan.

Kasu guztietan, egon litezkeen hiri-altzariak kontuan hartuta, gutxienez 3,5 metroko pasabidea bermatu beharko da baimendutako ibilgailuen edota oinezkoen joan-etorrietarako.

Kasu guztietan, egon litezkeen hiri-altzariak kontuan hartuta, gutxienez 2 metroko pasabidea bermatu beharko da oinezkoen etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre uzteko.

Establezimenduen ondoan egon daitezkeen espazio libreetan terrazak jartzeko eskaerak kasu bakoitzaren berezitasunen arabera ebatziko dira.

Kale Nagusiko eta Jose Miguel Iturriotzeko oinezkoentzako kaleetan, ibilgailuen zirkulaziorako erreia urbanizazioaren beraren zoladuraren zerrendek zehaztutako lerrokadurek mugatuko dute.

Nafarroa Etorbideko 1 eta 25 zenbakien arteko tartean, terrazaren gehieneko lerrokadura euri-urak biltzeko jarraiko ubideak mugatutakoa izango da.

3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza eraikinaren fatxadatik urrundu beharko da oinezkoen joan-etorria ahalbidetzeko.
4. Merkataritza-establezimenduen zabalera eta ordutegiaren arabera, baimendutako terrazaren funtzionamendu-ordutegia mugatua izan daiteke.

5. Inola ere ez dira okupatuko, 4,60 metrotik gorako altuera ez duten bizitegi-eraiinetako edo pasabide estalietako arkupedun etxabeak.
  6. Oinezkoentzako kaleetan ez da toldo mugikorrik baimenduko.
9. artikulua. Plaza eta espazio libreetako terrazak.
1. Terrazak plaza eta espazio libreetan jartzeko eskakizunak kasuan kasuko ezaugarriak aztertuta eta ondorengo baldintzen arabera ebatziko dira:
    - a) Terrazaren gehieneko luzera, establezimenduaren aurrealdea edo plazaren edo espazio librearen erdia izango da gehienez ere.
    - b) Instalazioaren gehieneko zabalerak ezin izango du plazaren edo espazio librearen heren bat gainditu, lorategiak, arkupeak edo antzeko elementuak kontuan hartu beharko direlarik. Baimendutako gehieneko zabaleraren herena osatzeko, terraza eremua ezingo da zatikatu.
    - c) Kasu guztietan, egon litezkeen hiri-altzariak kontuan hartuta, gutxienez 2 metroko pasabidea bermatu beharko da oinezkoen joan-etorrietarako eta etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre uzteko.
    - d) Toldo mugikorrek fatxadaren lerrokatatik gutxienez 2 metro aldentuko dira, horizontalean neurtuta.
    - e) Bideluze Plaza izeneko espazio librean, urbanizazioko zoladurak zehaztutako lerrokatuak mugatuko du ibilgailuen zirkulaziorako erreia.
  2. Inola ere ez dira okupatuko, 4,60 metrotik gorako altuera ez duten bizitegi-eraiinetako edo pasabide estalietako arkupedun etxabeak.
10. artikulua. Terrazaren eta elementu osagarrien ezaugarri teknikoak eta kokapena ezaugarriak:
1. Oro har, elementu guztiek, instalatu aurretik, udalaren oniritzia izan beharko dute. Udalak, baimenarekin batera, baimendutako okupazio-elementuak eta azalerak jasoko dituen dokumentu grafiko bat bidaliko dio interesdunari.
  2. Terrazaren eta horien elementuen ezaugarri teknikoak:
    - a) Terrazako mahaiak eta aulkiak:  
Terraza-mahaiak biribilak edo karratuak izango dira, eta ezingo dute 1 m<sup>2</sup>-ko azalera gainditu. Mahai bakoitzeko gehienez 4 aulki jarriko dira.
    - b) Mahai eta aulki altuak:  
Mahai altuak biribilak edo karratuak izango dira, eta ezingo dute 0,25 m<sup>2</sup>-ko azalera gainditu. Mahai altu bakoitzeko gehienez 2 aulki altu jarriko dira.
    - c) Eguzkitako itzalkinak:  
Mahai bakoitzeko, gehienez ere, eguzkitako itzalkin bat jarriko da. Bere azalera gehienez ere 4 m<sup>2</sup>-koa izango da, eta 2,20 m-tik 2,60 m-ra bitarteko altuera izango du, terrazaren sestratik neurtuta.

d) Toldo mugikorrek:

Plazetan kokatzen diren terrazaren kasuetan toldo mugikorrek baimendu ahal izango dira. Hauek ezingo dute inolaz ere terrazak hartzen duen azalera osoa gainditu, eta 9. artikuluan arautzen diren gehieneko azalaren okupazioaren inguruan ezarritakoa bete beharko dute.

Toldo mugikorrek 2,20 m eta 3,00 m bitarteko altuera izan beharko dute.

e) Alboko toldoak:

- Gutxienez, alboko toldoaren azalaren erdigunean edota goiko aldean %70ean zeharrargia izango da.
- Egonkorak eta jarraian jarritakoak izango dira, ez dute ertz bizirik izango eta mugitu eta irauli ez daitezzen behar beste elementu izango dituzte.
- Oinezkoen sarbide eta zirkulazio beharren arabera ezarriko dira. Terrazaren azalaren alde luzeetan ezin izango dira alboko toldoak instalatu, eta terrazaren alde laburretan bakarrik instalatu ahal izango dira.
  
- Alboko toldoak ezingo dira mahaiek hartzen duten zabalera baina luzeagoak izan, eta gehienez 1,50 metroko altuera izango dute.
- Edonola ere, Udalak prestatutako terraza planoan zehaztuko da bereizte-elementuak terrazaren zein aldetan instalatu daitezkeen.

F) Berogailuak:

- Fatxadako berogailuak:
  - Establezimenduen fatxada aurrealdeetan berogailuen instalakuntza baimendu ahal izango da, baina ezin izango dute establezimenduko fatxada gainditu.
- Zutikako berogailuak:
  - Gehienez ere 2 mahai bakoitzeko berogailu bat instalatu ahal izango da.
  - Zutikako berogailuen gehieneko altuera 2,30 m-koa izango da.

Oro har, ehunezko elementuz osatutako terrazetako elementu osagarriak, hala nola eguzkitakoak eta toldo mugikorrek, T2 mailakoak izango dira, "plastikozko kautxuz estalitako ehunak izeneko UNE-EN 15619:2014 arauaren arabera. Aldi baterako egituren segurtasuna (dendak). Dendetarako eta antzeko egituretarako estalitako ehunen zehaztapenak", C-s2, d0, UNE-EN 13501-1: 2007 arauaren arabera.

Terrazak eta hauen elementu osagarriak ezin izango dira zoladurara edota eraikinetako fatxadetara ainguratu, garraiagarriak izango dira eta erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli daitezzen ekiditeko beharrezko ezaugarriak izango dituzte. Hiri-altzariekiko nolabaiteko harmonia eta estetika gorde beharko dute, kolore eta akabera neutroak erabiliz (zuriak, kremak, kromatuak).

Okupatutako jabari publikoaren eremua egunero garbituko da, eta terrazak eta hauen elementu osagarriak egunero jasoko dira 19. artikuluan araututakoaren arabera. Ezaugarri teknikoak edota kokapenekoak bat ez badatoz ordenantza honetan araututako zehaztapenekin edota interes publikoaren aurkakoak badira, udal-teknikariekin eginiko eskaeraren arabera beste proposamen bat aurkeztuko dute, eskatzaileari entzunaldia emanez, egoki deritzona alega dezan.

### III. TITULUA

## BIDE PUBLIKOAN SALMENTA-ERAKUSTOKIAK JARTZEA

11. artikulua. Salgai dauden produktuen erakustokien ezaugarri teknikoak.

Bide publikoan erakustokien bidez produktuak erakusteko/saltzeko baimena eman ahal izango da, baldin eta honako arau hauek betetzen badira, betiere, dagokion sektore legeak xedaturikoari kalterik egin gabe.

Baldintzak:

- Erakustokiak behar bezala margotuta eta korrosiotik babestuak egongo dira, guztiz garbi. Gurpilak izango dituzte alde batetik bestera eramateko, eta beharreko finkatze elementuak izango dituzte erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli ez daitezen. Debekatua dago lurlean nahiz fatxadan inolako euskarririk jartzea. Erakustokien egiturek ez dute ertz zorrotzik izango eta nolabaiteko harmonia eta estetika izan beharko dute hiri-altzariekiko, kolore eta akabera neutroak erabiliz (zuriak, kremak, kromatuak).
- Erakustokiak eraikinaren fatxadari atxikita instalatuko dira, eta luzerak ezingo du gainditu jarduera duen lokaleko fatxadaren luzera, eta etxebizitzetara nahiz lokaletara sartzeko 2,00 metroko sarbidea bermatu beharko da.
- Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan 1,50 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da eta erakustokien zabalera izango da kokatzen diren espaloiko zabalaren herenekoak eta, gehienez, 1,00 metroko zabalera.
- 3,50 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da oinezkoentzako kaleetan eta plazetan.
- Oinezkoen zirkulazioa eta hiri-altzarien erabilera era egokian bermatzeko, kasu bakoitzean bete beharreko zabalera librean ezingo da egon hiri-altzaririk edo bestelako elementurik.
- Erakusten diren produktuak elikagaiak badira, lurretik 0,75 metroko altueran jarriko dira gutxienez, eta gainerako produktuak, berriz, lurretik 0,10 metrora.
- Erakustokiek nahi adina apal izango dituzte, lurretik gora 1,40 metroko altuera arte. Erakustokiek eta salgaiek osaturiko multzoa ez da 1,60 metrotik gorakoa izango.
- Debekatuta dago bide publikoan salmentako produktuak pisatu, neurtu edo kobratzeko elementuak jartzea.
- Erakustokiak establezimenduaren kanpoaldean eduki ahal izango dira merkataritza ordutegian. Ordutegi hori amaitzean erretiratu egin beharko dira, okupatzen zuten bide publikoa garbi utziz.

12. artikulua. Merkataritza-jardueren elementu osagarrien erakustokien ezaugarriak.

Baldintzak:

- Dekorazio elementu edo/eta kartelak beharreko finkatze elementuak izango dituzte erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli ez daitezen. Debekatua dago lurlean nahiz fatxadan inolako euskarririk jartzea. Dekorazio elementu edo/eta kartelen egiturek ez dute ertz zorrotzik izango.
- Dekorazio elementu edo kartelak eraikinaren fatxadari atxikita instalatuko dira, eta kokatu ahal izango dira lokaleko fatxadaren luzeraren barnean, eta etxebizitza nahiz lokaletara sartzeko 2 metroko sarbidea bermatu beharko da.
- Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan 2 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da eta elementuen zabalera izango da kokatzen diren espaloiko zabalaren herenekoak eta, gehienez, 0,60 metroko zabalera eta 1,20 metroko altuerakoak.

- Oinezkoentzako kaleetan eta plazetan 3,50 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da. Dekorazio elementuak edo kartelak, gehienez, 0,60 metroko zabalera eta 1,20 metroko altuerakoak izango dira.
- Oinezkoen zirkulazioa eta hiri-altzarien erabilera era egokian bermatzeko, kasu bakoitzean bete beharreko zabalera librean ezingo da egon hiri-altzaririk edo bestelako elementurik.
- Etxebizitza arkupeetan gutxienez 2 metroko pasabide librea bermatuko da.
- Dekorazio elementu edo/eta kartelak establezimenduaren kanpoaldean eduki ahal izango dira merkataritza ordutegian. Ordutegi hori amaitzean erretiratu egin beharko dira, eta okupatzen zuten bide publikoa garbi utzi.

#### IV. TITULUA

#### LIZENTZIAK IZAPIDETZEA ETA KUDEATZEA

##### 13. artikulua. Baimen-eskakizuna

Baimena eskatu nahi duenak artikulua honetan adierazitako dokumentuez gain, alkatetzari zuzendutako eske-idazkia aurkeztu beharko du Erregistro Nagusian honako hauek azalduta:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak.
- b) NAN, telefono eta helbidearen datuak.
- c) Jardueraren izena, IFZ eta kokapena.
- d) Xehetasun nahikoa duen krokis-a, terrazak hartuko lukeen eremua zehaztuz, mahai eta aulkien kokapena, mahai kopurua eta okupazioaren iraunaldia, besteak beste.
- e) Jarri nahi diren erakustokien eta dekorazio-elementuen deskripzioa jasotzen duen txostena, krokisa eta argazkiak barne.

##### 14. artikulua. Ebazpena.

1. Behin eskakizuna honako Ordenantza honetan zehaztutakoen arabera eginda, eta aurreiazko txosten teknikoaz aztertu eta gero, alkatetzak legeak ezarritako epeen barruan emango du ebazpena.
2. Baimen-agirian instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak agertuko dira, hala nola, okupazio-azalera, mahai eta aulki kopurua, okupazioaren indaraldia eta beharrezko irizten diren berezitasun guztiak.
3. Baimenarekin batera terrazaren eta elementu osagarrien kokapenaren eta ezaugarrien plano deskriptiboa igorriko da. Azken agiri hori argi ikusteko moduan eta ikuskatzaileen eskura jarriko da.
4. Egokitzat jotzen den kasuetan, Udalak bide publikoan terrazaren instalazioen eremuak mugatzeko beharrezkoak diren markaketa- eta zuinketa-elementuak instalatu ahal izango ditu.
5. Jabari-publikoa okupatzeagatiko tasak edo Ordenantza urratzeagatiko isunak ez ordaintzeak baimena ukatzeko arrazoi izan daitezke.
6. Udalak, aurrez dagokion txosten teknikoaz jasota, ezezkoa eman ahal izango dio erakustokiak eta elementu osagarriak instalatzeari, interes publikoaren mesedetan, oinezkoen dentsitate handia dela eta edota garbiketa-, segurtasun- eta apainketa-egoerak direla eta.
7. Udalak beharrezko kontrolak egingo ditu Udaltzaingoaren bitartez, Ordenantza hau betetzen dela zaintzeko. Hori guztia Euskal Herriko Poliziari buruzko ekainaren 27ko 7/2019 Legearen baitan (27.1.d art.).

15. artikulua. Baimenaren baldintzak.

1. Baimenak emanak ulertuko dira, jabetza eskubidea salbu eta hirugarrenentzako kalterik gabe, eta ezingo dira argudiatu baimendunari jardunaren ondorioz etor dakiokkeen erantzukizun zibil edo penala desagerrarazi edo arintzeko.
2. Okupatzeko baimenak ondorioz gabe geratuko dira, interesdunei espresuki ezer jakinarazi beharrik gabe, hartuko duten lekuari eta ordutegiari dagokionez, espazio publiko hori erabili behar bada Udalak bide publikoan antolatutako ekimen eta jardueretarako (larunbatetako azokak, festak, ekitaldiak, etab.).

16. artikulua. Tasa.

1. Lizentziaren titularrak indarrean dagoen Ordenantza Fiskalaren arabera tasa ordaindu beharko du.

17. artikulua. Iraupena.

1. Instalazio-lizentziak urtebetekoak izango dira.
2. Emandako baimena automatikoki berrituko da datozen ekitaldietarako baldintza berberekin eta epe berdinerako, baldin eta aurretik ez bazaio Beasaingo Udalari baja emateko idatziz eskatu.

18. artikulua. Ordutegia.

1. Jarduera nagusiaren ordutegi-baimendua dena delakoa izanda ere, terrazak erabiltzeko ordutegia honako hau izango da:

Terrazak bide publikoan jartzeko ordutegia: goizeko 8etatik aurrera.

Ixteko ordutegi orokorra: 23:00etan.

Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 01:00ean.

Ekainaren 1etik irailaren 30era: 24:00etan.

Ostiral, larunbat eta jai bezperetan: 02:00etan.

2. Merkataritza-establezimenduetako erakustokiak eta elementu osagarriak jartzeko ordutegia merkataritza-establezimenduak zabalteko ordutegi bera izango da. Nolanahi ere, ezin izango dira 08:00ak baino lehen jarri, eta 20:00ak baino lehen kendu beharko dira.

19. artikulua. Instalazioa kentzea.

1. Aurreko artikuluan ezarritako ordutegia amaitutakoan, instalazioaren titularrak baimendutako material guztia bildu beharko du. 20 minutu ditu elementu guztiak bide publikotik kentzeko.
2. Lokalaren barruan jaso ezin diren elementuak establezimenduaren fatxadaren kontra jaso beharko dira, modu ordenatuan, kontzentratuan eta kateatuta.
3. Nolanahi ere, zutik dauden berogailuak establezimenduaren barruan jaso beharko dira. Baimendutako materiala jaso ondoren, baimendunak arduratu beharko du erabili duen eremua garbi eta txukun uzteaz.

20. artikulua. Instalazioaren titularraren betebeharrak.

- Betekizun nagusiak eta Ordenantza aplikatzearen ondoriozkoak kaltetu gabe, instalazioaren titularrak erabilera baimenduko lurzoruaren, instalazioaren beraren eta elementu osagarrien garbitasun, segurtasun eta apaintasuna

zaintzeko betebeharra du, beharrezko baliabide guztiak erabiliz. Ondorioz, egunero garbituko da okupatutako jabari publikoa.

- Instalazioaren titularra, terrazaren eta bere elementu osagarrien funtzionamenduaren eta erabileraren ondoriozko arau-hausteen erantzulea izango da.
- Instalazioaren titularrak urtero ordaindu beharko dizkio Udalari dagozkion tasak eta gainerako ordainarazpenak, Ordenantza Fiskaletan ezarritako zenbatekoan eta moduan.
  
- Baimendutako eremura hertsiki mugatzea, inolako arrazoiengatik eremua ezingo delarik gainditu, eta bezeroek halakorik egin ez dezaten beharrezko neurriak hartuz.
- Instalazioaren titularrak, Udalak baimenarekin batera emandako baimendutako terrazaren planoa jarri beharko du establezimenduaren fatxadan.
  
- Debekatuta dago kanpoaldean barrak, bozgorailuak, telebistak, musika-gailuak edo antzeko gailuak jartzea. Era berean, ezin izango da telebistarik jarri beirazko itxituraren ondoan, bide publikora begira.
- Debekatuta dago lokaletik kanpo baimendutakoa baino altzari gehiago pilotuta edukitzea. Baimenean baimendutako materiala soilik egongo da bide publikoan.
- Instalazioaren titularrak auzokoen atsedeen eskubidea errespetarazi beharko du, hortaz, terraza muntatu eta desmuntatzerako garaian ez da zaratarik sortuko eta terrazaren erabiltzaileen aldetik ez dira zalaparta, iskanbila eta/edo zaratak baimenduko, batez ere, 23:00etatik aurrera.

#### 21. artikulua. Arau-hausteak.

Ondokoak arau-hauste arintzat jotzen dira:

- a) Agindutako ordutegiaz kanpo terrazak jartzea.
  
- b) Baimendutako kopurua baino elementu (mahai, aulki eta elementu osagarri) gehiago jartzea.
  
- c) Baimendutako kokapenez kanpo jartzea mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak.
- d) Okupazio-espazioa behar bezalako apaintasun, segurtasun eta garbitasun baldintzatan ez edukitzea.
- e) Bide publikoan baimenean baimendutako baino altzari gehiago pilotuta izatea.
- f) Ordenantza honetan zehaztutako gainontzeko arauen urraketa arina burutzea.

Ondokoak arau-hauste larritzat jotzen dira:

- a) Lizentziarik gabe jartzea terrazak eta elementu osagarriak.
- b) Instalazioaren titularrak hiru arau-hauste arin pilotuz gero behin betiko zigorr ebazpena jasoko du.
- c) Kanpoaldean bozgorailuak, telebistak, musika-gailuak edo antzeko gailuak jartzea.

#### 22. artikulua. Zigorrak.

Ordenantza urratzea ondorengo eskalan adierazitako isunekin zigortuko da:

- a) Arau-hauste arinak: 100 €-tik 750 €-ra bitarteko isuna edo/eta lizentzia ezeztatzea eta, ondorioz instalazioa berehala kentzea, Udalaren errekerimendua betetzen ez bada.

- b) Gertakarien larritasuna aintzat hartuta, 751 € eta 1.500 € arteko isuna eta/edo ordenantza honetan araututako etorkizuneko terrazarako baimen-emateetan parte hartzeko inhabilitazioa.

23. artikulua. Udal baimenik gabeko instalazioak.

Alkatetzak, aurretiaz interesduna entzuteko epea ireki eta gero, berehala kendu ahalko ditu baimenik ez duten terrazak, arauk agindutako zigorrak ezartzea kaltetu gabe.

24. artikulua. Betearazte subsidiarioa.

Instalazioaren arduradunak bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal-aginduari muzin egingo balio, Ordenantzak zehaztutako kasuren bat emanez gero, Udalak terraza kentzeari ekingo dio eta udal biltegietan gordeko ditu jasotakoak. Jabeak elementu horiek guztiak berreskuratu ahal izango ditu dagokion zenbatekoa ordaindu eta gero.

## II XEDAPEN GEHIGARRIA

Merkataritza saltokien noizbehinkako hedapenak:

Udalerriko eremu, auzo eta barrutietako merkatarri-elkarteek salgai-hondarren, denboraldiko hondarren eta antzekoen azoka txikiak sustatu ahal izango dituzte establezimenduen aurrealdearen dagoen espazio publikoan, edo, salbuespenez, beste espazio publiko batzuetan, urte natural bakoitzean lau egunez, egun horietatik bi ondoz ondoko egunak izan ahalko direla. Elkarte sustatzaileak ekimenari atxiki zaizkion eta parte hartzeko asmoa daukaten saltokiak identifikatuko ditu, eta, azoka txikia egiteaz batera, bide publikoan bestelako jarduerak egiteko eskatuz gero, jarduera horiek zehatz-mehatz azaldu beharko dituzte, eta espazio publikoaren zein zati erabili nahi dituzten ere adierazi beharko dute.

Azoka txikia sustatu duen merkatarri-elkartearen lurralde eremuan kokatuta dauden eta elkarte horretako kide ez diren merkatariek bat egin ahal izango dute ekimenarekin, betiere ekimenari atxikita dauden parte-hartzaileen zerrendan ageri badira; merkatarri-elkarteak alde aurretik emango dio zerrenda hori Udalari. Aipatutako ekimenari atxiki ahal izateko eta partehartzaileen zerrendan inskribatu ahal izateko baldintzak (adibidez, prezioa, behar bezala justifikatuta) Alkatetzak onartu beharko ditu aurrez; horretarako, dagokion ekitaldia izan baino 15 egun lehenago aurkeztu beharko zaizkio baldintza horiek. Zerrenda horretan inskribatuta ez dauden merkatariek, elkarteko kide izan edo ez izan, ezin izango dute euren merkataritza establezimendutik kanpora luzapenik atera, Alkatetzak baldintzak onartu ez dituen salbu.

## II XEDAPEN GEHIGARRIA

Pandemia edo osasun-krisi egoeretan, Udalak salbuespenezko neurriak hartu ahal izango ditu ordenantza hau aldi baterako aldatzeko.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, indarrrik gabe utziko du 2018ko maiatzaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 91. ZK argitaratutako Beasaingo Udaleko "Aulkiak eta mahaiak herri-bidean jartzea arautzeko Ordenantza".

## AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, 2023ko urtarrilaren 1ean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu ostean sartuko da indarrean.

### B.- HIRI IZAERAKO BIDE PUBLIKOETAKO ERABILERA, TRAFIKO, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. ALEGAZIOAK EBAZTEA ETA BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA. 2022UDBO0032

Lurralde batzordeko proposamenaren berri eman da, hau da:

#### “AURREKARIAK

1.- 2022-06-26. Udalaren web orrian argitaratzen da araudia egin aurreko kontsulta, herritarrek iradokizunak aurkeztu ahal izateko, 2022-07-07arte.

2.- Aipatutako epealdi horretan ez ziren iradokizunik aurkeztu. Udalbatza Osoak 2022-07-21ean egindako bileran ondorengo erabaki zuen:

*“Lehenik. Hiri izaerako bide publikoetako erabilera, trafiko, zirkulazio eta segurtasuna arautzen duen udal ordenantza aldatzeko Ordenantzaren aldaketari hasierako onespena ematea.*

*Bigarren. Jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, GAOean iragarkia argitaratua eta adieraziz epea horretan ez bada inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztzen, aipatutako Ordenantzaren aldaketa behin-betiko onartua geratuko dela.”*

3.- GAOen argitaratu zen iragarkia, 2022-08-01ean. Alegazioak aurkezteko 30 egun balioduneko epean, 2022-09-13an amaitzen zena, alegazio bat aurkeztu da.

4.- 2022-10-08an, udaltzainburuak ondorengo txostena eman du:

*“Imaz andereak 2022ko irailaren 14ean idatzizko alegazio bat aurkeztu zuen Udalean trafiko ordenantzaren 10. Artikuluan egin nahi den aldaketari buruzkoa.*

*Artikulu horretan oinezko guneko trafikoa arautzen da, eta gaur egun kontrolatzeko dagoen bideo-zaintza sistema zaharkituta dagoenez, hau aldatzeko unea iritsi da. Azken 15 urteotan egon den kontrolak hainbat gabezia dituela antzeman denez, hauek zuzentzeko helburuarekin aldaketa batzuk proposatu dira oinezkoen babesa eta segurtasun baldintzak hobetzeko.*

*Helegitean aipamen zuzen bat egiten zaio ordenantza berrian txertatu diren ibilbideei, batik bat, Kale Nagusi hasierako bizilagunek egin beharko luketen irteera ibilbideari buruz. Honen baitan, bizilagun hauek Andramari kaletik irtetzera behartuak egongo lirateke.*

*Kontutan izanda bizilagun horiei ordenantzan ematen zaien aukera Martina Maiz kaletik irtetzearena dela, eta ingurune horren berrantolaketa proposatuko duen Mugikortasun Planaren esku-hartzeak egikaritu gabe daudela, Imaz andereak egiten duen helegitea partzialki onartzea erabakitzen da.*

*Proposatzen den Ordenantza honen behin-betiko onspen dokumentuan, Kale Nagusiko hasierako bizilagunek Andra Mari kaletik irteteko aukera izaten jarraituko lukete eta bigarren aukera bezala, Jose Miguel Iturrioz 16-tik irten beharko lirateke. Azken aldaketa honekin, oinezkoen segurtasun ikuspegitik sentsiblea den Bideluze Plazan ibilgailu kopurua nabarmen jaitziko litzateke irteera puntu hau kenduz.”*

*Ondorioz, Lurralde Batzordeak Udaltzari aurkeztu dio hurrengo erabaki-proposamena.*

*Lehenik. Aurkeztutako alegazioa zati batean onartzea.*

*Bigarren. BHiri izaerako bide publikoetako erabilera, trafiko, zirkulazio eta segurtasuna arautzen duen udal ordenantzaren aldaketari behin betiko onespena ematea, bertan atxikiz aurkeztutako alegazioarekiko onartu den zatia.*

*Hirugarren. Erabaki honen berri alegazioak aurkeztu dituenari ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.*

*Lauugarren. Testu osoa GAoean argitaratzea indarrean sartu ahal izateko.”*

Alkatea andreak (EAJ-PNV): “Hemen ere ideia nagusiak nabarmentze arren esan, Kale Nagusia 40tik sartzen diren ibilgailuak Andre Mari kaletik igotzeko aukera izango dute edota bestela, Andre Mari kaleko igoera ez badute hartzen, zuzenean beheraino joan beharko dute Jose Miguel Iturriotz-etik telefonikako irteera horretatik ateratzeko. Jose Miguel Iturriotzeko bizilagunek, aldiz, Bideluzeko zubitik sartuko beharko dute eta eskubira, Jose Miguel Iturriotz-etik atera beharko dute eta berdin Arana kaleko bizilagunek. Lorategi kalea ixten da, puntu arriskutsua delako eta laster bide bezala baimena duten hainbat ibilgailuek erabiltzeko ohitura daukatelako. Beste aldaketa txiki bat da, Andre Mari 1-5 dugun gunea, orain arte ez zegoen oinezko gunean sartuta, ordenantzan akatsa zegoelako. Hori ere zuzentzeko aprobetxatu da. Bizikleta edo mugikortasun ibilgailuek oinezkoentzako gunetik noranzko batean zein bestean zirkulatu dezakete. Hurrengo aldaketa, karga eta deskarga ordutegiarena da: astelehenetik ostiralera, goizeko zazpietatik eguerdiko ordu batera egiten da. Lehen oker ez banago zortzietatik eguerdiko ordu bietara zen. Pentsatu da goizeko ordu horretan egitea denoi ere hobeto datorkigula, oinezko pertsona gutxiago ibiltzen direlako ordutegi horretan baina mantendu da zeren eta merkatariekin egin diren kontsulten arabera, goizean zehar jasotzen dituzte beraien hornikuntzak . Merkatariak beraien zamalanak egiteko, beraien ibilgailuak erabiltzen badituzte, 24 orduak izango dituzte baina beti ere 5etatik 8etara ezin izango dute sartu oinezko gunean horretan. Garajerik ez duten bizilagunek, egunean bi aldiz sartu daitezke gehienaz ere 30 minutuko tartearekin. Helburua da herri gunean oinezko gehien dabiltzan momentu horiek ibilgailu pribatu horretaz ahalik eta gutxiena ibiltzea. Beste helburuetako bat da Bideluzeko plaza deskongestionatzea. Orain arte, Kale Nagusia 40tik sartzen ziren ibilgailuak hortik ateratzen ziren eta Bideluze plaza izanik, bakarrik sartuko dira Jos Miguel Iturriotz eta Arana kalera joango direnak. Beste guztiek edo Andre Mari kaletik edo Jose Miguel Iturriotz kaletik irteteko aukera izango dute.”

Hitza eman ondoren, proposamenarekiko ondorengo iritziak eman dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “La mayoría de las quejas presentadas en la alegación son las mismas que nosotros tuvimos cuando se presentó esta ordenanza, con los cambios de tráfico recogidos en el punto 10.5. se ha estimado la alegación y se han efectuado cambios, pero aún así vemos que los que suben por Andre Mari, la única respuesta que tienen sería salir por San Inazio. Estamos a favor.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Ordenantza honi hasierako onespena eman zitzaionetik hona, aldaera nabarmena ikusi dugu. Evak azaldu duen bezala Andre Mari kaletik bideratu nahi zen trafiko guztia eta hori sozialista udal

taldearen aldetik zalantzan jarri zen. Kuriosoa egiten zaigu orduan eman zen azalpena. Irakurriko dut Adurrek esandakoa: *INTRA enpresak trafiko azterlana egin du eta horrek esan nahi du ordenantzan azaltzen diren aldaketak teknikoek babesa dutela eta irizpide tekniko horiek hartzeko, lekuko datuetan oinarritzen direla*. Kuriosoa da orduan justifikazio hori ematea eta orain babesten dugun aldaketa. Ematen du inprobisazio baten gabiltzala, zeren eta batzordean esan zen ikusi egin beharko zela mugikortasun planean zer esaten zen. Gainera oker, ez bagaude hori bideratzeko kameraren bat jarrita dago. Ez dakigu tartean zer bait pasatu den edo bestelako aholku bat jaso duzuen edo besterik gabe alegazioari kasu egin zaion. Beraz, orain ez da betetzen hasieran ordenantza honekin bilatu nahi zen helburuetako bat. Ez zaigu oso garbi geratzen, ordenantza hau denbora jakin baterako den ala mugikortasun planari itxaron behar diogun. Ez zaigu iruditzen jokabide zuzena denik ordenantza horrela onartzea.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Logikoki ibilbide batzuk planteatzen badira eta kasu honetan lehen aurreikusten zen Andre Mariko igoerarako, nahitaezkoa da obra batzuk egitea ibilbide horiek moldatzeko eta erradio bira batzuk ukitzeko. Gure asmoa zen obra horien diseinua eta egikaritzea behin betiko onespren hau emateko prest egotea, baina hori ez da horrela izan. Beraz, baldintza horiek ez badira ematen ez zaigu egokia iruditzen alternatiba horretara joatea. Iruditzen zaigu lehen pauso hau ematea eta mugikortasun planeko behin betiko proposamenak ditugunean, orduan aktuatzea. Egia da eta horrela azaldu genuen batzordean mugikortasun planaren eskuhartze zirriborroa zentzu horretatik doala, baina egun ezin dut zehaztu %100 hemendik urte betera horrela izango denik. Ibilbide aldaketa, obra batzuei lotuta zegoen eta egutegiagatik ez da posible izan obra horiek egitea. Horren ondorioz, egoera horretara hemendik urtebetera edo iritsiko gara. Ikusiko dugu. Ez gara ibili behar hiru hilabetero ordenantza aldatzen. Gaur egun proposatzen den moduan onartzea zentzuzkoa iruditzen zaigu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Mugikortasun plana aurrera eramaten ari den enpresa argi ikusten du, erdi bide honetan irteera bat eman behar zaiola. Orain arte Kale Nagusia-Andre Mari ezkerretara hartzeko beste aukerarik ez da ikusten. Ezkerretara hartu eta Mendeurrenetik Irizarko biribilgunea joan behar izaten da. Eskubiko alde horri aukera ematea izango litzateke, baina obrak egin gabe daudenez ez dauka zentzurik aldaketa hori aurrera eramatea.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Hasierako onespren honi begira ez zen aipatu obra egiteko beharra.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Nik uste dut bira eta erradioaz aipamenean bat egin zela. Jakitun ginen, adibidez, eliza pareko eta Martina Maiz bidegurutze horretan beharrezkoa izango zela bira erradioa ikutzea.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak:5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo ordenantza onartu da:

**HIRITAR IZAERAKO HERRI-BIDEEN ERABILERA ETA HORIETAKO TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTUKO DITUEN UDAL-ORDENANTZAREN XEDAPEN OROKORRAK**

### 1. artikulua. Eskuduntza

Ordenantza hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (4. eta 25. artikuluek zehazki) Udalerriei Trafiko eta Zirkulazio gaietan ematen dizkien eskuduntzen indarrez eman da.

### 2. artikulua. Arautuko dena

Ordenantza honek arautuko duena, herri barruko bideen trafikoaren arloko erabilera da eta, era berean, trafikoaren antolamendua, zaintza eta kontrola, arau-hausteen salaketak eta zigorrak, ibilgailuak ibilgetzeko, kaleetatik kentzeko eta nonbait jasotzeko eta abandonatutako ibilgailuentzat hartu behar diren zuhurtziazko neurriak hartzeko eta haiek gordetzeko.

### 3. artikulua. Ordenantzaren erabilera esparrua

Ordenantza honetan agindutakoa, Beasaingo udal-barrutiko bide hiritar guztietan izango da aplikagarri.

I. IDAZPURUA  
UDALERRIKO BIDE HIRITARRETAKO TRAFIKOAREN ANTOLAMENDUARI ETA  
ZIRKULAZIOARI BURUZKOAK

### I. ATALBURUA. OINARRI NAGUSIAK

#### 4. artikulua. Legedia orokorraren zuzeneko ezarpena

Udal-ordenantza honen osagarri moduan erabiliko da Trafiko, Motoredun Ibilgailu eta Bideetako Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina, urriaren 30eko 6/2015 E. D. Legegilearen bidez onartua. Era berean, haren arauzko xedapenak ere aplikagarri izango dira.

#### 5. artikulua. Trafikoa antolatu eta kontrolatzeko neurriak

5.1. Udalak trafikoa antolatzeko bidezko irizten dituen neurriak har ditzake, ibilgailu edo oinezko guztien edo jakin batzuen ibiltzeko baldintzak betiko edota aldi baterako aldatuz, murriztuz edo debekatuz edota zamalanak eta salgaien edo pertsonen garraioak arautuz edota berrantolatuz.

5.2. Udaltzaingoak, herriko tokiren batean zirkulazioaren antolamendua aldatu ahal izango du aldi jakin baterako edo/eta lekuren batean pertsonak eta ibilgailuak sartzeko debekua ezarri. Horretarako, aldi baterako behar diren seinaleak jarri edo kendu eta zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna bermatzeko behar diren neurriak hartu ahal izango ditu.

5.3. Ondasunak edo pertsonak ibiltzeko, aparkatzeko edo garraiatzeko, Udaltzainek adierazitakoak, lehentasuna izango du alde zuzenetik dagoen edozein seinale edo araudiren gainetik.

5.4. Udalak, baimena duten ekitaldiak egingo diren tokietan, edo konponketa, seinalez tapen, mantenimendu edo garbiketa-lanak egingo diren lekuetan, aldi baterako aparkatzeko debekua ezarri ahal izango du. Horretarako, aipatutako tokiak edo lekuak,

hesiz inguratu eta, aparkatzeko debekua hasi baino 24 ordu lehenagotik han aparkatzea debekatu egingo dela adierazten duten seinaleak jarriko dira, neurri horren hasiera-unea eta arrazoia adierazita.

## II. ATALBURUA. JOKABIDE-ARAUAK

### 6. artikulua. Herri-bideetako oztopoak

6.1. Debekatuta dago edukiontzi, mahai, aulki, kiosko, saltoki edota beste edozein oztopo edo gauza ere herri-bideetan jartzea, aldez aurretik udalaren baimenik izan gabe eta bidearen erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko adinako babes, argiztatze eta seinaleztapenik gabe eta era berean beharrezkoa den baimenean hartarako ezarriko diren arauak bete gabe.

6.2. Herri-agintariak oztopoak kautelaz eta berehala kendu ahal izango ditu, eta gastuak interesatuen kargura izango dira, ondoren datozen egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

1. Beharrezkoa den baimena eskuratu ez dutenean.
2. Baimenaren adierazitako indarraldia amaitua denean.
3. Baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.
4. Baimena emateko arrazoiak desagertzen direnean.

6.3. Aldiz, segurtasun edo higie-ne eta osasun-arrazoiengatik beharrezko denetan edota obrak burutzeko, ikuskizunak egiteko, beharrezko baimena duten segizioak pasatzeko eta antzeko gertakizunak, Udalak era berean oztopoak kendu egingo ditu. Ekintza horrek sortuko dituen gastuak, Udalaren gain joango dira, zonalde hori ez balitz behar bezala seinalizatu edota oztopoak seinalizazioa jarri aurretik jarriak baleude.

### 7. artikulua. Seinaleztapena

7.1. Zirkulaziorako mugapen espezifikokoak dituzten gunek, eremu edo areetarako sarbideetan jarritako zirkulazio-seinaleek eta haiei buruzko testuren bat daramatenek, dagokien gunek, eremu edo area osoan izango dute indarra.

7.2. Aldez aurretik udalaren baimenik izan gabe, ez da zirkulazio seinalerik jartzerik izango.

7.3. Udal-agintaritzaren iritziz herriaren interesekoak diren informazio-seinaleak bakarrik baimenduko dira.

7.4. Zirkulazio-seinaleetan edo haien ondoan publizitatea jartzeko baimenik ez da emango.

7.5. Debekatuta dago erabiltzaileei semaforoak edo seinaleak ikustea galaraziko edo mugatuko dieten edota haien arreta galtzeko bidean jarriko duten estalpe, kartel, iragarki edota instalazioak jartzea.

7.6. Udalak, behar duen baimenik ez duen edota indarrean diren arauak betetzen ez dituen edozein trafiko seinale ere berehala kenduko du, eta kentzeko gastuak, seinale

hura jarri dutenen kargura, edota zeharka haren onura jasotzen dutenen kontura izango dira.

## 8. artikulua. Geratzea

8.1. Pertsonak hartzeko edo uzteko edota gauzen zamaketa-lanetarako, ibilgailua bi minutu baino gutxiagoko denboran ibilgetzea edo geratuta edukitzea, geratze-eragiketatzat hartuko da.

8.2. Geratzea, erabat debekatuta egongo da:

8.2.1. Larrialdi edo segurtasun-zerbitzuetako ibilgailuentzat gordetako lekuetan.

8.2.2. Pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen den lekuetan.

8.2.3. Espaloiak ezinduak igarotzeko zintarria janda daukaten lekuen ondoan.

8.2.4. Espaloi, pasealeku, oinezkoen eremu eta lorategien gainean.

8.2.5. Ertz, bide-banaketa edo bidegurutze batetik 3 metro baino gutxiagora.

8.2.6. Zubietan eta tuneletan.

8.2.7. Autobus eta taxien geralekuetan.

8.2.8. Ibiliaren aurkako noranzkoan.

8.2.9. Dauden seinaleek debekua adierazten duten tokietan.

## 9. artikulua. Aparkaldia edo aparkatzea

Aparkalditzat edo aparkatsetzat joko da, geratuta (geraldian) ez dagoen ibilgailu bat ibilgetuta egotea. Orokorrean, ondorengo arauen bidez arautuko da ibilgailuen aparkaldia:

9.1. Ibilgailuak ilaran aparkatu ahal izango dira, hau da, espaloiarekiko paraleloan; baterian, hau da, espaloiarekiko elkarzut (perpendikular) eta erdi-baterian, hau da, espaloiarekiko zeharka.

9.2. Lau gurpileko ibilgailuentzako arau orokorra, ilaran aparkatzea da eta baterian, bi gurpilekoentzat berriz baterian aparkatzea. Arau honen salbuespena, espresuki seinalatu beharko da.

9.3. Seinaleztapena lurzoruan eginda dagoen lekuetan, ibilgailuak hartarako markatutako perimetroaren barnean jarri behar dira.

9.4. Nolanahi ere gidariak, ibilgailua bere kasa ez abiatzeko edota beste pertsonaren batzuek ez mugitzeko moduan aparkatu behar dute. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte. Gidariak izango dira alde aurretik aipatu berri diren egoeretakoren baten ondorioz sor litekeen ibilgailuaren kokaleku-aldaketaren baten ondorioz gerta litekeen edozein arau-hausteren erantzule, nola ezta, ibilgailuaren lekualdaketa, hirugarrenen batzuen egintza bortitz nabarmenen baten ondorioz gertatu ez den.

9.5. Ondorengo egoeretan debekatuta dago ibilgailuak aparkatzea:

9.5.1. Bertan dagoen seinaleak hala egitea debekatzen duen lekuetan.

9.5.2. Elementu mugikor edo zutoinen ondoan, elementu horiek zerbitzuentzako eta larrialdietarako diren pasaguneetan jarrita egon ohi dira eta.

9.5.3. Geratzea debekatuta dagoen tokietan.

9.5.4. Bigarren ilaran, lehenengo ilara oztopo edo/eta babes-elementuren batek hartua egon arren.

9.5.5. Ibiliaren aurkako noranzkoan.

9.5.6. Bertan dagoen pasabidea uzteko seinalea aintzat hartu gabe edozein eraikinetarako ibilgailu-sarbidean pasabidea erabat edo zatiren bat itxiz.

9.5.7. Karga eta deskargako lanak egiteko gordetako lekuetan.

9.5.8. Ezinduek bakarrik erabiltzeko seinalatutako lekuetan.

9.6. Herri-bideetan ez da motorezko ibilgailutik bereizitako atoi eta erdi-atotirik, ez eta autobusik, traktorarik, karabanarik edota 3.500 kiloko B.G.M.tik gorako ibilgailurik aparkatu ahal izango, horretarako espresuki baimendutako modu, toki eta aldietan izan ezik, hauek udal-bandoaren bidez iragarriak izango dira.

9.7. Udalak, salbuespen-izaeraz, herriko zenbait auzo edo eremutan aparkatzea mugatu ahal izango du, horretarako baimena ibilgailu zehatz batzuei bakarrik emanaz.

9.8. Leku berean ezingo da 30 egun jarraian baino gehiagoz edo mugarik gabeko epealdian aparkatu, abandonu-egoera eman dela uste izateko moduan.

9.9. Udaltzainek, salbuespen izaeraz, herri-bideetako leku zehatzetan aparkatzea debekatu ahal izango dute, behar bezala baimendutako festa, kultura, kirol edo antzeko ekitaldiak direla eta.

#### *10. artikulua. Oinezkoentzako guneak*

10.1 Nagusia - Bideluze plaza - Jose Martin Arana - J.M. Iturriotz kaleari dagozkion oinezkoentzako eremuak izendatu dira 2tik 16ra – Andramari kaletik 1etik 5era - Nafarroa etorbidea 1etik 25era eta Gernika pasealekua.

Oinezkoentzako eremuak izendatzeak esan nahi du eremu mugatu osoan oinezkoentzako erabilera izango dela lehentasunezkoa, eta debekatuta dagoela ibilgailuen trafikoa, aparkatzea eta gelditzea, hurrengo ataletan berariaz arautzen diren kasuetan izan ezik.

10.2. Oinezkoentzako eremuek seinalez tapen egokia izan beharko dute, non eta ez diren agerikoak diseinuaren, egituraren, apainduraren edo zoladuraren ondorioz.

10.3 artikulua Kontrol-sistemaren ezaugarriak.

Sarrera guztietan informazio-kartelak jarriko dira, kale horretan zirkulazioa galaraziz, baimendutako ibilgailuetan izan ezik.

Kontrola kamera-sistema baten bidez egiten da. Sistema horrek matrikula-irakurgailu bat du.

Baimenduta badago, dagokion eremuan zirkulatu ahal izango du, erabiltzaile bakoitzari baimendutako ordutegiaren barruan.

Erabat debekatuta dago oinezkoentzako gunean zirkulatzea, dagokion baimenik gabe.

10.4 artikulua. Ibilgailuen trafikoa  
Baimendutako ibilgailuen trafikoak honako zirkulazio-arau berezi hauek bete beharko ditu:

— Ibilgailuen gehieneko abiadura 10 km/ordukoa izango da.  
-Ibilgailu motordunen, ziklomotorren eta zikloen gidariek lehentasuna eman behar diete oinez doazen pertsoneri, eta haien ohiko pasabidean abiadura murriztu behar dute, baita behar izanez gero gelditu arte ere.

— Ibilgailu motordunek eta ziklomotorrek dauden trafiko-seinaleak kontuan hartuta zirkulatu beharko dute, bereziki zirkulazioaren noranzkoa adierazten dutenak.  
— Bizikleta edo Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak erabiltzen dutenek oinezkoentzako gunetik noranzko batean edo bestean zirkulatu ahal izango dute. Nolanahi ere, oinezkoen pasabidean zirkulatu beharko dute.

## 10.5 ZIRKULAZIO-EREMUAK

Oinezkoentzako gunearen barruan, hainbat igarobide bereiziko dira. Baimenaren arabera, dagokion sekziotik bakarrik zirkulatu ahal izango da, baimenduarekin bat ez datorren tarte batetik zirkulatzea zehatzeko arrazoia izango da:

1. tarte: Nafarroa etorbidea. Sarrera Nafarroa etorbide 25etik (Barrendain plaza) eta irteera Nafarroa etorbide 1etik (Erauskin plaza) egingo da.

2 tarte: Kale Nagusia. Kale Nagusia 40 (Ibañez kafetegia) ondoan izango du sarrera eta irteerak Andramari kaletik (Riojano tabernaren ondoan) eta J.M. Iturrioz kalea 16 atariaren ondotik

3. tarte: Bide Luze Plaza. Sekzio honetako sarrera Bide-Luze plazako zubitik egingo da eta irteera Jose Miguel Iturrioz kaletik izango da.  
Arana kaleko bizilagunak ere Bide Luze plazatik sartu beharko dira oinezko eremura eta J.M. Iturrioz 16tik atera.

10.6 artikulua. Ordu-tegi eta taldeak.

Hainbat talde eta ordu-tegi bereizi ditu.

10.6.1. Garajeak: eguneko 24 orduetan sartzeko baimena izango dute. Gehienez 2 ibilgailu baimenduko dira garaje-plaza bakoitzeko. Ibilgailuak ezingo dira oinezkoentzako gunetan aparkatuta egon, eta garajearen barruan egon beharko dute.

Garajearen erabiltzaile gisa baimendu ahal izateko, dagokion dokumentazioarekin frogatu beharko da garajearen jabetza edo, halakorik ezean, alokairu-dokumentu bat.

10.6.2 Larrialdiak: oinezkoen gunean sartzeko baimena izango dute 24 orduz.

10.6.3 Karga eta deskarga: astelehenetik ostiralera, 07: 00etatik 13: 00etara. Ibilgailu horientzat gehienez ere ordubeteko egonaldia egin ahal izango da.

10.6.4 Merkatariak. Erabiltzaile horientzako baimena zamalanak egitera mugatzen da. Dagokion oinezkoentzako gunean, Nafarro etorbidean edo Kale Nagusian sartu ahal

izango dira eguneko 24 orduetan, 17: 00etatik 20: 00etara izan ezik. Ibilgailu horientzat gehienez ere 30minutuko egonaldia baimentzen da.

Establezimendu bakoitzean bi ibilgailu baimenduko dira.

10.6.5 Garajerik ez duten bizilagunak: ibilgailuaren titularrak oinezkoentzako gunean erroldatuta egon beharko du.

Nafarroa etorbidea: 24 orduko baimena. Sarbidea egunean bi aldiz izango da eta gehienez 30 minutu.

Kale Nagusia: 24 orduetan baimentzen da, 17: 00etatik 21: 00etara izan ezik. Sarbidea egunean 2 aldiz izango da eta gehienez 30 minutu.

Etxebizitza bakoitzeko baimendutako gehieneko ibilgailuak 2 izango dira.

10.6.6 Azoka arruntetako saltzaileen ibilgailuak:

Astearte, ostiral eta larunbatetan egiten diren azoka arruntetako ohiko saltzaileek sarrera baimendua izango dute beren produktuak saltzera joaten diren azoka-egunetan, honako ordutegi honetan:

#### ASTEARTEA ETA OSTIRALAK

-Salmentako produktuak 06: 00etatik 08: 00etara deskargatzeko sarrera izango da.

- Materiala eta produktuak jasotzeko berriz sarrera 12: 00etatik 14: 00etara izango da.

#### LARUNBATETAN

-Salmenta-produktuak 08: 00etatik 10: 00etara deskargatzeko sarrera.

- Materiala eta produktuak jasotzeko sarrera 12: 30etik 14: 30era.

10.6.7 Baimen bereziak

Horrelako baimenak Udaltzaingoari eskatu beharko zaizkio, eta eskaera idatziz egin beharko da, herritarrei arreta emateko bulegoaren bidez. Oinezkoen joan-etorri handieneko orduetan emango dira baimenak (11: 30etik 13: 30era eta 17: 00etatik 20: 00etara).

10.7 Baimen iraunkorrak.

Etengabeko baimena lortzeko eskubidea izango dute garajeen, larrialdien, merkatarien eta oinezkoentzako gunean bizi diren pertsonak.

Baimenak idatziz egingo beharko dira arreta bulegoan(l-gunea) edo telematikoki Beasaingo Udalaren web orriaren bitartez.

Baimen horien indarraldia mugagabea izango da, baimendutako erabiltzailearen egoerak edo baldintzak bere horretan dirauen bitartean; nolana ere, Udalak, ofizioz edo edozein interesdunek eskatuta, edozein unetan berrikusi ahal izango du baimena, eta ezeztatu ahal izango du. Nolanahi ere, araudi hori urte natural bakoitzean 3 aldiz

baino gehiagotan urratzen duten ibilgailu baimenduei ofizioz baliogabetuko zaie baimena.

#### *11. artikulua. Garraio publikoaren geralekuak*

Udal-administrazioak, garraio publikoetako zerbitzu desberdinetako bakoitzari, dagozkion geralekuak eta bertan egon ahal izateko denboraldiak zehaztu ahal izango dizkio.

#### *12. artikulua. Karga eta deskarga*

Karga eta deskargarako lekuak gordeta izango dituzten ibilgailuak, salgaien garraioan bereziki eta espresuki ari direnak izango dira eta lan horiek egiteko helburua bakarrik izango dute.

12.1. Salgaien karga eta deskarga, merkataritza eta industri arloko lokalen barruan egin beharko da lehentasunez, eta lokal horiek, hartarako baldintza egokiak izan beharko dituzte.

12.2. Merkataritza- edo industri arloko lokalek karga eta deskarga barruan egiteko egokierarik ez dutenean, lan horiek, hartarako jarritako ordu eta lekuetan egin beharko dira.

12.3. Udal Agintaritzak zehaztuko ditu karga eta deskargarako gordetako lekuak eta hori egiteko baimendutako orduak.

12.4. Karga eta deskarga egiteko baimena duten ibilgailuak, horretarako gordetako guneetan bakarrik egon ahal izango dira aparkatuta.

12.5. Nolanahi ere, zamatan egiteko baimena baimendutako ordu eta/edo leku orokorretatik kanpo ere eman ahal izango da, auzokideei eta gainerako bide-erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez zaienean.

12.6. Era orokorrean geratzea debekatuta dagoen lekuetan, inoiz ez da zamatan egon ahal izango.

12.7. Karga eta deskargarako lanen ondoriozko salgai, material edo gauzak, ez dira lurrean utziko, baizik eta eraikinetik ibilgailura edota alderantziz zuzenean eramango dira.

12.8. Karga eta deskarga-lanak, zarata kaltegarriak ez ateratzeko, behar diren neurriak hartuta egingo dira.

12.9. Salgaiak, espaloitik hurbilena dagoen ibilgailuaren aldetik zamatuko dira eta lan hori ahalik eta lasterren egiteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliko, beti ere, oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzen ahaleginduz.

#### *13. artikulua. Gordetako bideak eta erreiak*

13.1. Udal Agintaritzak, ibilgailu-mota batzuek ibiltzeko errei edo bide batzuek gorde ahal izango ditu.

13.2. Hartarako gordetako errei edo bideetatik ibiltzea, derrigorrezkoa ere izan daiteke haiek berentzat gordeta dituzten ibilgailuentzat.

#### *14. artikulua. Abiadura*

14.1. Hirigunean erabil daitekeen abiadurarik handiena, 30 km/h-koa izango da, bestelakorik dioen seinalerik ez bada.

14.2. Oinezkoentzako guneeetan, hartarako baimena emanda dagoenean, eta espaloirik gabeko galtzadetan eta oinezkoen joan-etorri handia dagoen beste hainbat lekutan, ibilgailuek, oinezkoak pasatu ahala abiadura laburtu egin beharko dute eta baita geratzera iritsi ere egoerak hala eskatzen duenean. Beti ere, istripurik izan ez dadin hartu beharreko neurri guztiak hartuko dituzte.

14.3. Era berean, oinez doazenei istripuak edo eragozpenak ez sortzeko diren neurriak hartuko dira, batez ere, zoladura gaizki dagoenean edo galtzada estutzen denetan, obretan ari direnean, eguraldi txarra egiten duenean, eta abar.

#### *15. artikulua. Zirkulazioa*

15.1. Ibilgailuek, ez dute zaratarik sortu behar soinuak edo seinaleak edo seinale akustikoak behar ez bezala erabilia, bortizki azeleratuta, ihes-tutua aldatuta edo hondatuta eramanda edota antzeko egoerek eraginda.

15.1.1. Kendu egingo da.

15.2. Bizikleta eta ziklomotoeen gidariek, indarrean diren zirkulazio- eta seinaleztapen-arauak jakin egin behar dituzte eta haiek eta Agintaritza-agenteeek emandako argibideak estu-estu bete behar dituzte.

15.3. Zikloek, irristailuek eta gurpil-oholek, berentzat gordetako erreietan ibili behar dute edo oinezkoen guneeetan, oinezkoen lehentasuna errespetatuz eta haientzat arriskurik sortu gabe, abiadura oinezkoenari egokিতuta. Zikloek inoiz ezin izango dute herriko beste espaloietan zirkulatu.

15.3.1. Debekatua dago irristailu, gurpil-ohol eta antzekoekin galtzadetan ibiltzea.

15.4. Txirrinduak galtzadan zehar dabiltzanean, eskuinaldeko ertzetik ibiliko dira.

15.5. Hainbat txirrindulari taldean doazenean, hauek parean joan daitezke.

15.6. Debekatuta dago txirringan edo ziklomotoean beste lagunik eramatea, azken horrek horretarako baimena duenean salbu.

15.7. Gurpildun aulkietan dabiltzanak, oinezkoentzako espaloietan ibiliko dira beren neurriek oinezkoen eragozpenik sortu gabe ibiltzeko aukera ematen dietenean. Hori ezinezkoa balitz, galtzadatik ibiliko dira, eskuinaldeko ertzetik eta une oro ere bideetako seinaleak errespetatuz.

#### *16. artikulua. Ibiltzeko edo aparkatzeko baimen bereziak*

Udaleko Agintaritzak, pisu edo neurri batzuetatik gorako ibilgailuak leku eta/edo ordu zehatz batzuetan zirkulatzea edo aparkatzea mugatu ahal izango du, eta horretarako

udal baimenik izan ezean, herriko bideetan barrena ez dute zirkulatzerik izango. Baimen hori, bidaia bakar baterako edo denboraldi baterako eman ahal izango da.

*17.artikulua. Herri-bideetan galarazitako jarduerak*

17.1. Beste oinezko batzuentzat edo jarduera horiek egiten ari direnentzat arriskua edo eragozpenak sor ditzaketen jolas edo denborapasak, herri-bideetan ez dira egingo.

17.2. Edozein esparru edo zerbitzutara sartzeko sortutako itxarote-ilarak, ordenaz egin beharko dira, banakako ilaran eta eraikinaren fatxaden kontra, galtzadara irten gabe eta etxebizitza eta dendetarako sarbideak libre utziz. Ilara horiek sortzen dituzten jardueren arduradunek, beharrezkoa den ordena-zerbitzua jarri beharko dute, bidea erabili behar duten pertsonen eragozpenik ez jartzeko edota haiekin gorabeherarik ez izateko.

17.3. Debekatua dago salgai arriskutsuak dituzten ibilgailuek herrian barrena zirkulatzeko eta horretarako herria inguratzen duten bideak erabili beharko dira.

Salbuespen izaeraz, erabat behar-beharrekoa denetan ibilgailu horiei herri-gunera sartzeko baimena emango zaie, ondoren aipatzen diren arrazoietakoren bat tarteko delako eta, beti ere, ondorio bakar horietarako eginda eta urtarrilaren 31ko 74/92 Errege Dekretuak xedatutako eran eta baldintzen pean eginda:

- Salgaien karga eta deskarga egiteko eta salgaiak banatu edo zabaltzeko.
- Behar bezala justifikatuak eta ezinbestekoak diren arrazoiengatik.

17.4. Debekatuta dago herri-bideetan ibilgailuak garbitzea, hartarako leku zehatzen bat egokituta dagoenean salbu.

II. IDAZPURUA  
ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA, MAILAKETA, JARRI BEHARREKO ZIGORRAK  
ETA ZIGORREN PROZEDURA

I. ATALBURUA. -ARAU-HAUSTEAK, MAILAKETA ETA EZARRIKO ZAIZKIEN ZIGORRAK

*18. artikulua. Arau-hausteen kontzeptu orokorra*

Administrazio-hutsegite izaera izango dute, ordenantza honek arau-haustetzat jotzen dituen egintza edo ez-egite guztiek eta haren baitan ezarritako portaera-arauen aurkako jarrerak, baina martxoaren 2ko 339/90 E.D.L.ak eta horren arau-xedapenek ondorio horientzako zuzenean ezartzearen kalterik gabe, lege penaletan sailkatutako delitu edo hutsegiteak diren kasuetan salbu, kasu horietan Administrazioak erruaren zatia horretarako eskuduntza duen eskumenari pasatuko baitio eta zigor-prozedura gelditu egingo du, Agintaritzak Judizialak epai finkoa ematen ez duen arte.

*19. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak*

19.1. Ordenantza honekiko egindako arau-haustek, arin, larri eta oso larri mailetan sailkatuko dira. Arau-hauste arinak 100 € arteko isunarekin zigortuko dira, larriak 200 €-ko isunarekin eta oso larriak 500 €ko isunarekin, indarrean dagoen legeriak kontuan hartutako salbuespenak izan ezik.

19.2. Ordenantza honi erantsita doa arau-hausteen eta haien zenbatekoen Eranskina.

19.3. Abiadura gainditzeagatik egindako arau-hausteak, indarrean den legedian zehaztuta dagoen zenbatekoarekin zigortuko dira.

19.4. Alkoholdun edarien, sustantzia sorgogarrien edo antzekoen eraginpean gidatzeagatik egindako arau-hausteak eta sustantzia horiek antzemateko edota alkoholneurria jakiteko probei ezetza esatea, arau-hausteen taulak dakarren eranskinean jasotako zenbatekoarekin zigortuko dira.

19.5. E.D.L. ren 6/2015eko 80.1 artikuluan eta IV. eranskinean ezarritako isunei dagokien diru-kopurua % 30 hazi liteke honako hauek aintzat hartuta:

1. Gertatutakoaren garrantzia eta larritasuna.
2. Arau-hauslearen aurrekariak.
3. Berrerortzea.
4. Berarentzako eta bidearen erabiltzaileentzako arrisku potentziala sortzea eta egokitasun printzipioa.

19.6. Arau-haustearen arduradun gidaria identifikatu beharra du ibilgailuaren titularrak edo errentariak eta bidezko arrazoirik gabe prozedura tramitean betebeharrak hau betetzen ez bada, isuna eragin duen arrazoientzako ezarrita dagoen diruzko zigorraren bikoitza ezarriko zaio arau-hauste arina bada, eta hirukoitza arau-haustea larria edo oso larria bada.

## II. ATALBURUA. ZIGOR-PROZEDURA.

### *20. artikulua*

Motordun ibilgailuen trafiko eta zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko zigor-prozedura, indarrean dagoen legedian ezarrita dagoena izango da:

E.D.L.aren 6/2015, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina eta otsailaren 25eko 320/1994 E.D., Trafikoari, ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari, buruzko gaietako zigor-prozeduraren araudia onartzen du.

### *21. artikulua. Isunaren ordainketa. Prozedura laburtua*

Isuna, jakinarazitako egunaren biharamunetik 20 eguneko epean ordainduz gero, % 50 murriztuko da eta ondorio hauek izango ditu:

- Alegazioak aurkezteari uko egitea. Eginez gero, ez dute baliorik izango.
- Ordainketa egiten den egunean, prozedura amaitu egingo da, xedatutako ebazpen beharrik gabe.
- Administrazio bidea amaitutzat emango da eta administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren aurrean bakarrik jar daiteke errekurtsua.
- Administrazioarekiko auzien errekurtsua jartzeko epea ordainketa egin eta hurrengo egunean hasiko da.

- Ordainketa unetik, administrazio bidean zigorraren irmotasuna, hurrengo egunetik ondorioak sortuz.
- Zigorra, Arau-hausle eta Gidarien erregistroan ez da aurrekari bezala kontuan hartuko, beti ere, puntuak galtzea ez dakarten arau-hauste larriak badira.

*22. artikulua. Prozedura eratzeko eta zigorrak jartzeko eskuduntza duten organoak.*

Ordenantza honetako araukiko egindako arau-hausteengatik irekitako espedienteen izapidetzea, Udaltzaingoaren administrazio-atalak egingo du, izapidegilea Udaltzain burua izanik. Prozedura amaitzean, dagokion ebazpena emango du organo zigoremaileak, eta organo hori Alkate-Udalburua izango da.

*23. artikulua. Agintaritzaren agenteen betebeharrak*

Udaltzainak, Agintaritzaren agenteak dira eta Ordenantza honekiko eta indarrean diren legeekiko egindako arau-hausteak salatu egin beharko dituzte.

*III.*

*IDAZPURUA*

*IBILGAILUAK IBILGETZEA ETA KENTZEA*

*I. ATALBURUA. IBILGAILUAK IBILGETZEA*

*24. artikulua*

Ibilgailuak herri-bidean ibilgetzea, bidezkoa izango da ondorengo kasuetan:

24.1. Ibilgailuak zirkulatzeko baimenik ez duenean.

24.2. Ibilgailuak bide segurtasunarentzako bereziki arriskutsuak izan daitezken akatsak dituenean.

24.3. Gidariak odolean legeak onartutakoa baino alkohol-tasa handiagoa duenean, edo sorgogarrri edo antzekoen eraginpean dagoenean.

24.4. Gidariak odolean daraman alkohol-edukia edo sustantzia sorgogarrri edo antzekoena neurtzeko proba egiteari uko egindakoa eta edari alkohol-dun edo/eta sustantzia sorgogarrri edo antzekoak hartu izan dituenaren sintomak nabaritzen direnean.

24.5. Ziklomotore edo motozikletaren gidariak kasko homologaturik gabe zirkulatzen duenean.

24.6. Gidariak ibilgailuentzako derrigorrezkoa den aseguru-agiria berekin ez daramanean.

24.7. Pertsonak garraiatzean, baimendutako plazen kopurua, gidaria kenduta, % 50ean gainditzen denean.

24.8. Legedian ezarritako gida denboran edo atsedenaldietan % 50eko gutxitzea edo handiagoa ikusten bada, gidaria ordezkatu ez bada behintzat.

24.9. Ibilgailu mota kontuan hartuta, baimendutako gas, ke eta zarata neurriak gainditzten dituzten.

24.10. Kontroleko tresnak manipulatuak izan direla adierazten duten zentzuzko zantzuak daudenean.

24.11. Ibilgailua irudiak jasotzen dituen kontrol tresnak eta Trafiko agenteen zaintza saihesteko mekanismo edo sistemaren batekin hornituta dagoenean.

24.12. Arau-hausteren bat salatutakoan, salatuak ohiko egoitza espainiar estatuan duela kreditatzen ez duenean eta isunaren behin-behineko kopurua ordaintzeko diru-kopururik gordailuratzten edo bermatzen ez duenean.

24.13. Ibilgailu bat araudia hausten duela aparkatuta dagoenean, baina zirkulazioa larriki nahastu gabe eta bere gidaria bertan ez legokeenean, edota bertan egonda handik kentzeari uko egiten dionean.

24.14. Ibilgailuak aparkatzeko gehieneko denboraldia ezarrita dagoen gunea batean (TAO gunea) aparkatuta dagoenean eta derrigorrezko txartel edo ordu-frogagiririk ez duenean, edota, hura izan arren, baimendutako gehieneko egonaldi-denbora gaindituko duenean.

24.15. Ibilgailua ibilgetzea indarririk gabe utziko da, egoera hori sortu zuen arrazoia desagertu orduko edota gidariaren ordezkari hartarako gaitua dagoen eta Agintaritzaren agenteei behar hainbateko bermea ematen dien beste gidari bat jar daitekeenean eta hark parte hartzea interesatuak berak eskatu duenean.

## II. ATALBURUA. –IBILGAILUA KENDU ETA GORDETZEA

### *25. artikulua*

Ibilgailuak herriko bidetatik kentzea eta udalak ibilgailuak jasotzeko duen biltegira eramatea, bidezkoa izango da ondorengo kasuetan:

25.1. Ibilgailuen edota oinezkoen zirkulaziorako edo udal-zerbitzu bat kaltetzea, arriskua sortzen duen kasu guztietan.

25.2. Ibilgailua bertan behera laga dutenaren edota lapurtutakoa denaren arrazoizko ustea dagoenean edota hori pentsaraztera daramaten kalteak dituzten.

25.3. Herri-bideko leku berean 30 egun baino gehiago aparkatuta daramatzanean eta bere kabuz mugitzea ezinezkoa egiten duten hondamenak dituzten edo matrikula-plakak ez dituzten.

25.4. Istripu bat dela medio, ibilian jarraitzeko moduan ez dagoenean.

25.5. Aurreko atalean zehaztutako arrazoiren bat erabiliz ibilgailua ibilgetua denean,

5. lerrokadan ezarritakoa erabiliz izan ezik eta aipatutako arrazoia desagertzeko adinako epealdia igaro ondoren, arrazoiak jarraitzen duenean.

25.6. 24.12.atalean xedatutakoari jarraituz ibilgailu bat ibilgetutakoan, lege-hausleak isunaren zenbatekoa ordaindu edota ordainketa hori bermatu nahi ez duenean.

25.7. Horretarako aginpidea duen Agintaritzak, ibilgailua bahitzeko esan eta udal-biltegian uzteko agindua eman duenean.

25.8. Horretarako aginpidea duen Agintaritzak ibilgailua zigilatzeke esan eta udal-biltegian uzteko agindua eman duenean.

25.9. Ibilgetu arazitako ibilgailua babesteko, hark dagoen tokian egonda bidearen gainerako erabiltzaileentzat edota ibilgailuarentzat berarentzat arriskua sortzen duenean.

25.10. Ibilgailuak aparkatzeko gehieneko denboraldia ezarrita dagoen gunean (TAO gunea) aparkatuta dagoenean eta derrigorrezkoa den txartel edo ordu-frogagirik ez duenean, edota, frogagiria izan arren, baimendutako gehieneko egonaldi-denbora bi aldiz gainditua duenean.

25.11. Ibilgailua legez ibilgetzen denean, pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatu gabe ibilgetzeko leku aproposik ez dagoenean.

25.12. Ibilgailua Udal-agintariak pertsona minusbaliatuentzako erreserbatutako tokian aparkatuta dagoenean, horretarako baimentzen duen txartelik gabe.

25.13. Ibilgailua zirkulaziorako erreserbatuta dauden bide zatiak, erreiak edota erabiltzaile batzuen zerbitzurako eta karga eta deskargarako erreserbatutako gunetan aparkatuta dagoenean.

25.14. Bizikletak hartu eta biltegiara eraman ahal izango dira, abandonatuta badaude edota, lotuak egonda, oztopatu edo pertsonak edo kaleko altzariak kaltetzen badituzte.

## *26. artikulua. Ibilgailua kentzearen arrazoiak.*

Adierazpen gisa, ibilgailu bat, Ordenantza honetako 25. atalaren 1. azpiataletan zehaztutako egoeratan dagoela eta hura handik kentzea justifikatua dagoela irizten da, ondorengo moduren batean aparkatuta dagoenean:

26.1. Geratzea debekatuta dagoen lekuan.

26.2. Bigarren ilaran dagoenean.

26.3. Beste gidariei maniobra arriskutsuak eraginarazten dizkien lekuren batean dagoenean.

26.4. Seinaleztatutako oinezkoen igarobide batean, oso-osorik edo zatiren bat bertan duela dagoenean.

26.5. Garaje-sarbideren bat oso-osorik edo zati bat hartzen duela dagoenean.

26.6. Karga eta deskargarako gordetako gunean bat, erabilera-orduetan, oso-osorik edo zatiren bat hartzen duela dagoenean.

26.7. Garraio publikoaren geralekuren batean, jarduera-ordutegiaren barruan, oso-osorik edo zati bat hartzen duela dagoenean.

26.8. Larrialdi edo segurtasun-zerbitzuetarako espresuki gordetako lekuren bat edota era horretako ibilgailuak lekuren batera iristea oztopatzen duela dagoenean.

26.9. Ikuskizunen inguruan jarri eta behar bezala seinaleztatuta dauden larrialdietarako lekuen irteeren aurrean dagoenean, ikuskizunak jardunean ari diren orduetan.

26.10. Zirkulaziorako den errei batean dagoenean.

26.11. Espaloi, aterpe edo oinezkoentzako guneren baten gainean, oso-osorik edo zatiren bat dagoenean.

26.12. Herri-bidearen gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea galarazten diela dagoenean.

26.13. Beste herri-bide batetik datozen gidariei herri-bideko trafikoa ikustea eragozten diela dagoenean.

26.14. Eraikinen baterako sarrera erabat edo neurri batean eragozten duela dagoenean.

26.15. Baimena duen erabilera publikoko aparkaleku edo gordelekuren baterako sarbidea, zirkulazioa edo aparkatzea eragozten edo zailtzen duela dagoenean.

26.16. Aparkatzeko gunetik kanpo ateratzen dela eta zirkulazioko gunea hartuz dagoenean.

26.17. Duen egoerak auzokideentzat arriskua sortzen duela eta soinu-alarma edo bozina nahiz turuta, jotzen hasita dagoenean.

26.18. Ezinduentzako behar bezala seinaleztatutako guneren batean dagoenean.

26.19. Seinaleak, garabia erabiliko den seinalearekin sendotutako lekuan dagoenean.

## *27. artikulua*

Ibilgailuak eramateko udal-biltegiak izan ezean, edota, halakorik izan arren, bertan lekuri egon ezean, aparkatuta dauden eta aparkatze irregularreko egoerarekin batera zirkulazio-eragozpenak, asteroko azokarako postuak jartzeko eragozpenak edota dagokien pasabide-seinalea duten garajeetarako sarrera-irteerak eragozten dituzten eta/edo 26. atalean adierazitako egoeretan dauden ibilgailuak, dauden lekutik garabia erabiliz kendu eta ibilgetuta eduki ahal izango dira aparkalekuren batean, hain zuzen ere Agintaritzaren agenteek esango duten tokian, eta egoera horretan jarraituko dute, handik jasotzeko dagokien tasa ordaindu artean.

## *28. artikulua. Beste arrazoi batzuek*

Arau-hausterik egin ez arren edota isuna ordaintzeko beharrik ez izan arren, ondoko kasuetan ibilgailuak herri-bidetik kenduak izango dira:

28.1. Behar den baimena duen ekitaldi publikoren batek hartu behar duen tokian aparkatuta daudenean.

28.2. Kalea garbitu, konpondu, seinaleztatu behar denean edota bertan mantenimendu-lanak egin behar direnean.

28.3. Behar bezala arrazoitutako larrialdietan.

Kasu horietan eta 5.4. atalean esandakoaren kalterik gabe, ibilgailuaren titularrari kaletik zergatik kendua izan den azaltzen ahaleginduko da udala, eta hala balegokio, baita titularra topatzen ere.

*29. artikulua. Ibilgailuak kentzea gerarazi*

Ibilgailua kentzen ari direla gidaria azaldu eta ibilgailua behar den lekuan aparkatuko balu, erretiratzeko lana une hartan bertan geraraziko da. Tasei dagokienez, kasu horretan, ordenantzak dioena egingo da.

#### IV. IDAZPURUA IBILGAILUAREN HONDAKIN TRATAMENDUA

##### I. ATALBURUA. -IBILGAILUAK TRATATZEKO ZENTRO BAIMENDURA IBILGAILUA ERAMATEA

*30. artikulua.*

Trafiko kudeaketarako administrazio eskudunak agindua eman ahal izango du, Ibilgailuen Tratamendurako Baimendutako Zentrori ibilgailua eraman eta ondorioz desegin eta deskontaminatzeko:

30.1. Ibilgailuak bi hilabete baino gehiago daramatzean ibilgetuta edota bide publikotik erretiratuta eta administrazioak gordeta, eta jabeak alegaziorik egin ez duenean.

30.2. Ibilgailua leku berean hilabete bat baino gehiago aparkatuta egon eta bere kabuz mugitzea ezinezkoa egiten duten hondamenak dituen edo matrikula-plakak ez dituen.

30.3. Ibilgailua matxura edota istripuagatik toki pribatu batean jaso denean eta jabeak bi hilabeteko epean erretiratu ez badu. Ibilgailua eramateko agindua eman aurretik, Administrazioak jabeari errekerituko dio, hilabeteko epean erretiratzen ez badu, Baimendutako Tratamendu Zentro batera eramango dela.

30.4. Jakinarazpenak Ibilgailuen Erregistroan titular gisa agertzen denari egingo zaizkio.

30. 5 Ibilgailuaren hondakin tratamenduaren ondorioz sortutako gastuak, haren titularraren kontura izango.

*31. artikulua.*

30.3 artikulua jasotako egoera ematen denean, toki edo barrutiko jabe edo arduradunak ibilgailuari hondakin tratamendua emateko baimena eskatu behar du Probintziako Trafiko Buruzagitzara. Ibilgailuaren jabeari barrutik erretiratzearen eskaera egin izanaren dokumentazioa aurkeztu beharko du.

*32. artikulua.*

Komenigarria ikusten den kasuetan, Alkateak edo ordezeko agintariak, ibilgailua desegitearen ordezkaintza eta trafiko kontrola egiten duten zerbitzuei esleitu diezaiekete, eremu bakoitzean hurrenez hurren.

## II. ATALBURUA. -ADMINISTRAZIO BAIMENETAN XEDAPEN MUGAK

### *33. artikulua*

Gidabaimen edo lizentzia baten jabe den titularrak ezin izango du Ibilgailuen Erregistroan bere izenean azaltzen diren ibilgailuen tramitaziorik egin, gidari historialean ordaindu gabe administrazio bidean zigor irmoa duten lau arau-hauste larri edo oso larri izanez gero.

### *34. artikulua*

Ibilgailuaren jabeak ezin izango du ibilgailuari dagokion tramitaziorik egin, ibilgailuaren historialean ordaindu gabe administrazio bidean zigor irmoa duten lau arau-hauste larri edo oso larri izanez gero.

### *35. artikulua.*

Aurreko ataletan aipatutakoetatik kanpo geratzen da behin-behineko edo behin betiko ibilgailuen baja.

## V. IDAZPURUA IBILGETZE, JASOTZE ETA BILTEGIAN GORDETZEAREN HERRI-ZERBITZUA EMATEAGATIK SORTUTAKO TASAK

### *36. artikulua.*

Ibilgailua herri-bidean ibilgetzeko eta/edo handik jasotzeko zein hartarako jarriko den biltegian gordetzeko zerbitzua emateagatik sortuko den tasa, ekitaldi bakoitzerako dagokion Ordenantzak ezarriko duena izango da.

### *37. artikulua.*

Ibilgetzearen agindua kentzea eta aurrez garabiarekin kendutako ibilgailua itzultzea, titularrari edota baimendutako pertsonari bakarrik egin ahal izango zaio, dagokion tasak ordaindu edota ordaintzeko bermea jarri ondoren, baina ez hala 28. atalean aurreikusitako kasuetan.

### *38. artikulua.*

Aipatutako tasak, ibilgailua jasotzeko eta eramateko eragiketak egiteari ekiten zaionetik, ibilgailua kateatzen edo lotzen den unetik, hasita ordaindu beharko dira.

Azken xedapena.

Ordenantza hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik indarrean jarriko da.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe gelditzen da 2010eko uztailaren 1ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Hiritar Izaerako Herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen Udal-Ordenantza erregulatzaileria.

## TRAFIKO ARAU-HAUSTEAK

Arau-hausteak urriaren 30eko 6/2025 Legegintzako Errege Dekretuan eta hura garatzen duten erregelamenduetan tipifikatutakoak izango dira:

- Trafikoaren legea.
- Zirkulazioko erregelamendu orokorra.-
- Gidarien erregelamendu orokorra.-
- Ibilgailuen erregelamendu orokorra.
- 920/2017 Errege Dekretua, ibilgailuen azterketa teknikoari buruzkoa.-
- Eskola-umeen eta adingabeen garraioari buruzko araudia.
- Aseguruaren legea

Era berean, zehatu egingo dira trafikoari buruzko udal-ordenantza honetan jasotako agindu hauek:

6.1 Debekatuta dago bide publikoan edukiontzia eta oztopoak oro har jartzea udalaren baimenik gabe 40 €.

9.3 Zoladuran aparkatzeko perimetrotik kanpo aparkatzea 40 €.

9.6 Bide publikoan ibilgailu traktoretik bereizitako atoaia, erdi-atoia edo karabana aparkatzea 40 €.

9.6 Ibilgailua hirigunean aparkatzea, 3500 kg-tik gorako BGMrekin. 40 €

10.3 Oinezkoentzako gunetik ibiltzea dagokion baimenik gabe. 90 €.

10.4 Oinezkoentzako gunetik zirkulatzea, ezarritako noranzkoaren kontra. 90 €.

10.4 Ibilgailu motordunaren edo ziklomotorraren gidariak ez du abiadura moteltzen oinezkoen gunean, oinezkoak daudenean. 80 €.

10.4 Txirrindulariak ez du abiadura moteltzen oinezkoen gunean oinezkoen presentziaren aurrean. 80 €.

10.5 Baimendutakoa ez den beste tarte batetik zirkulatzea. 90 €.

12.3 Zamalanak ordutegi debekatuan egitea. 40 €

17.1 Debekatuta dago jokoak edo dibertimenduak egitea bide publikoan egokiak ez diren lekuetan. 40 €.

17.4 Debekatuta dago ibilgailuak garbitzea bide publikoan 40 €.

38 Espedientean aipatutako ibilgailua ibilgetzeagatik.

38 Espedientean adierazitako ibilgailua garabiarekin kentzeagatik.”

#### **4.- BERRI EMATEA:**

- 2022ko uztailaren 18tik urriaren 23arte emandako Ebazpenak.
- 2022ko uztailaren 18tik urriaren 23arte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

Ezagutzera eman dira aipatutako Ebazpenak.

#### **5.- PREMIAZKO PUNTUA. 2016BIBO0028**

Bileraren hasieran aipatutako premiazko puntua tratatzea bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

Alkateak proposamenaren berri eman du:

*“Gaia: Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzeko kontratua.*

#### **AURREKARIAK**

*I.- Aipatutako zerbitzuak emateko, Udalak eta GOXARA S.L. enpresak lau urterako kontratua sinatu zuten 2016ko azaroaren 7an, bi luzapenekin, bakoitza urtebetekoa. Aurreikusitako bi luzapenak erabili dira, eta azkena 2022-11-06an amaituko da. Horrek esan nahi du data horretan amaitzen dela kontratua.*

*II.- 2022-06-30. Hori kontuan hartuta, Udaltzak erabaki zuen beste lizitazio bat egitea, eta, horretarako, aipatutako zerbitzuak kontratatzeke baldintza-pleguak onartzea.*

*III.- 2022-07-01. Lizitazio publiko berria abian jarri da eta deialdia Euskadiko Kontratazio Plataforman eta EBAOn argitaratu da. Proposamenak aurkezteko epean, kontratazio-errekurtso berezia aurkeztu zen baldintzen pleguaren aurka eta Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (KEAO), 2022-08-09an, prozedura eteteko ebazpena eman zuten, errekurtsoaren edukia ebaztearen kalterik gabe.*

*Horrek esan nahi du KEAOk errekurtsoa ebazteko ebazpena eman arte ezin dela lizitazio-prozedurarekin jarraitu. Proposamen hau egin arte ez da ebazpenik eman.*

*IV.- Eguneko zentroa eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua funtsezko zerbitzutzat eta interes publikoko zerbitzutzat jotzen dira, eta, beraz, beharrezkoa da zerbitzu horiek jarraian eta etenik gabe ematea, herritarrei oro har eta, bereziki, zerbitzu horien hartzaileei nahasmendu larririk ez eragiteko.*

*Ondorioz, irtenbidea nahitaezko luzapena egitea izango litzateke, ulertuz luzapen hori ez dela kontratuan aurreikusitako esanbidezko edo isilbidezko luzapena eta luzapen hori eratorri dela salbuespenezko egoera iragankor batetik (izapidetutako lizitazio berria, baina esleipenerako ezintasuna, prozeduran izandako gorabeherengatik).*

*V.- 2022-10-03. Udalak GOXARA S.L.ri proposatu zion kontratua egungo baldintza berdinetan luzatzea (preziosa barne), esleipen berria egin arte.*

*Enpresak, 2022-10-19ko idatziaren bidez, jakinarazi du ezinezkoa dela zerbitzua ematen jarraitzea kontratuaren baldintza ekonomikoak eguneratu gabe, horrek*

Sozietateari kalte egingo lioketen arrisku eta kostu gehigarriak bere gain hartzea ekarriko lukeelako.

Jarraitzeko, 2022ko azaroaren 7tik aurrera lizitazio berriaren baldintza ekonomikoak aplikatzeko eskatu du.

VI.- 2022-10-21. Erantzun horren aurrean, Udalak beste planteamendu bat egin zuen, kontratistarekin akordio batera iristeko (bidalitako idazkia erantsi da).

Planteamenduaren terminoak proposamen honen xedapen-zatian adierazten direnak dira, arrazoi hauek direla medio:

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Kontratuaren prezioa gorantz aldatzen da. Horretarako kontuan izan da bakarrik Beasaineko GOXARA, S.L. ren eta langileen artean 2022-2024 urteetarako sinatutako lan-hitzarmenetik (GAO 07-04-2022), eratorritako soldata-igoera.

Ez dago sektorean aplikatzeko hitzarmenik.

- Eguneko Zentroaren zerbitzua

Kontratuaren prezioa gorantz aldatzen da, arrazoi hauengatik:

- Loinatz Eguneko Zentroa udalaren titulartasunekoa da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena dago hura finantzatzeko.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero eguneratzen ditu Udalari ordaintzen dizkion tarifak, urtez urte zerbitzuaren kostua handitu egiten delako. Horregatik, lizitazio berriari eta neurri horretan, prezioa berrikusi da.
- Udalak, aurreikusitako luzapenetan, pleguan ezarritakoarekin bat etorritik, ez du eguneraketarik egin.
- Horregatik guztiagatik, prezioa handitzea proposatzen da, xedapen-zatian adierazten den moduan.

VII.- 2022-10-24. GOXARA, S.L. enpresak egindako planteamenduarekin ados dagoela adierazi du.

VIII.- 2022-10-25an, idazkariak txostena egin zuen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) hirugarren xedapen gehigarriko 8. paragrafoan xedatutakoa betez.

IX.- 2022-10-26. Fiskalizazio txostena.

#### OINARRI JURIDIKOAK

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 303. artikulua.
- Auzitegi Gorenaren 1986-11-18ko epaia.
- Auzitegi Nazionalaren 24/2016 Epaia, 2016ko urtarrilaren 20koa.
- Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea: 31/17 espedientea

Ondorioz, Osoko Bilkurari honako erabaki-proposamen hau aurkezten dio:

Lehena. Beasaingo Udalak eta GOXARA S.L. enpresak 2016-11-7an sinatutako kontratua luzatzea.

Bigarrena. Luzapena, nahitaezkoa (kontratuaren eta aurreikusitako luzapenen iraupen-epea amaitu da), honela egiten da:

- IV. aurrekarian adierazitako arrazoiengatik.
- Esleipen berria egin arte.
- Hurrengo bi puntutan adierazitako terminoetan.

Hirugarren. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA:

• 2022ko azarorako (2022-11-7tik aurrera, hau barne) eta abendurako: % 1eko igoera zerbitzuaren orduko prezioan, hau da, 2021arekiko langileen soldataren igoeraren baliokidea.

• 2023ko urtarrilerako eta hurrengoetarako, eta esleipen berria egin arte: % 22,55eko igoera zerbitzuaren orduko prezioan, hau da, langileen soldataren 2022ko igoeraren baliokidea, hau da: % 22,83ko igoera hogeita hamar laguntzailerentzat eta % 14,13koa koordinatzaile batentzat.

Lauugarren. EGUNEKO ZENTROAREN ZERBITZUA

• 2022ko azarorako (2022-11-7tik aurrera, hau barne) eta abendurako: Beasaingo tarifen igoeraren ehunekoaren baliokidea izango da igoera, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutakoa.

Igoera hori abendua arte ezagutuko ez denez, gutxi gorabehera, erregularizazioa abenduko fakturan egingo da.

• 2023ko urtarrilean eta hurrengoetan, esleipen berria egin arte: 2022ko azarorako eta abendurako ezarritakoa finkatzeaz gain, Udalak GOXARA, S.L.ri konpentsatuko dizkio eguneratze horrekin estali ezin diren eta kontratistak justifikatu beharko dituen ustezko gastuak.

Bosgarrena. Nahitaezko luzapenaren erabakia formalizatzea dagokion administrazio-agiria sinatuz.

Seigarrena. Erabaki honen berri GOXARA S.L. kontratistari ematea, eta horren aurka jar daitezkeen errekursoak adieraztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Todos hemos sido concededores de la situación en la que nos encontramos ante el recurso especial de contratación presentado ante el OARC. También hemos conocido las limitaciones legales para poder seguir adelante y entendemos que la medida a adoptar es de carácter temporal. Dado que la propuesta se apoya en un informe técnico, estamos de acuerdo con ella dado que se trata de un servicio de interés público y totalmente necesario. Podría suceder que el efectuar una prórroga sin modificaciones generara una situación precaria para la empresa.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Gu ados azaldu gara premiazko puntua modura tratatzeko, gaiak horrela eskatzen zuelako.kontutan izanda zerbitzua ezinbestekoa dela. Aipatu nahiko genuke, ordea, gai honen inguruan etengabe galdetzen ari garela eta azkeneko aldiz informazioa eskatu genuenean (lehengo asteko herritar batzordean), esan zitzaigun idazkaria aztertzen ari zirela amaitu ostean

prozedura sinplikatua bidez lizitazio bat egitea. Orain jakin dugu urriaren 3an GOXARARI egin zitzaioela jakinarazpen bat egungo baldintzetan zerbitzua ematen jarraitzearena. Urriaren 19an erantzun zuen eta 21ean egin zitzaion proposamen zehatz bat. Horrek arreta deitu digu. Zalantza izan dugu alderdi politiko bezala, gau hauetaz ardura dugulako, Eskertuko genuke e-mail baten bidez informazioa ematea, ez da ezer kostatzen. Erantzuna heren egunekoa da baina errekerimendu bat egina zegoena, hau da, prozesu bat hasita zegoen eta urriaren 20an emandako informazioa beste bat izan zen. Proposamen inguruan, GOXARAK onartu badu, guk ez dugu kontraktorik esango. Ea errekurtsioa ebatzen den eta baldintza egokietan zerbitzua emateko modua egiten den. Salbuespen hau ez dadila prozedura orokorrean bihurtu.”

Idazkariak ezagutzera eman du, errekurtsioa ebatzi behar duen organoak telefonoz esan dutela azaroaren erdialdera arte ez dutela ebatzerik izango.

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Quiero agradecer al grupo municipal socialista y a EH Bildu por aceptarlo como punto de urgencia y por aprobar la propuesta. En general por todo el proceso. Creo que hemos ido a la par. Siento mucho la percepción de EH Bildu. Yo he trasladado lo que yo he sabido en todo momento.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Yo diría que dada la urgencia del tema, según tu disponías de información, nos reuníamos.”

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Es verdad que a GOXARA se le manda la propuesta de prórroga forzosa bastante antes y quizás de eso no se dio traslado al entender que era un mero trámite. Los siguientes pasos los he dado a conocer en el momento en el que yo lo he sabido. Esta última oferta ha sido un poco precipitada. En un principio se pensaba acudir a un procedimiento simplificado pero finalmente al amparo de las sentencias que se citan se elabora la propuesta que, admitida por la contratista, ahora se somete a aprobación, de la cual os he dado traslado, una vez conocida la misma.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Pozten gara irtenbide bat bilatu izana, baina prozedura aldetik, agian (ez informazioa ezkutatu nahi izan zaigulako), beste argibide batzuk eman zitezkeen.”

Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV): “Batzordea urriaren 20an izan zen eta orduan eman zen informazioa genukeena izan zen. Kontratatari egiten zaion proposamen berria, nik sinatu nuen 21ean 14,30ak aldera.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Egungo kontratua, azaroaren 6an amaitzen denez, bagenekien erabakiren bat hartu beharra izango genuela. Gure apuru momentuak ere izan ditugu. Gaia zaila eta oso sensiblea da. Hasierako asmoa zen azaroa eta abendua kondizio berdinetan luzatu eta datorren urtetik aurrera, kopuruagatik hilabetero (egungo lizitazioa esleitu arte), uste genuelako prozedura bakarra zegoela, prozedura ireki sinplikatua erqabiltzea, nahiz eta gure teknikariei horrek lana suposatu. Luzapen forzoso horrek ez du esan nahi behartu egin diezaiokegula kontratatari, baizik eta adostua izan behar duela”

Idazkariak esan du hori tentuz hartu behar dela. Izan ere kasu honetan luzapen hori adostua izan behar du, egungo kontratuari aurreko Kontratu-Legea aplikatu behar zaiolako. Gaurko legearekin ez da adostea eskatzen.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Azkenean irtenbide hau lortzeko arrazoi hauek direla medio izan da: aurreko Kontratu-Legea aplikatzea dagokiolako, lizitazio martxan dagoelako eta ezin izan delako esleitu, kontratutik ondorioztatutako errekurtsio berezia aurkeztu delako eta oraindik ez delako ebatzi”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Kontuan izanda urtarriletik aurrera lan-hitzarmen berria dagoela, eskatu nahiko genuke egin beharrekoak egitea jakiteko benetan langileei lan-hitzarmen hori aplikatzen zaiela. Ez dugu nahi Kiroldegian pasaten ari dena gertatzea, hau da, langileen hitzarmena ez da berritzen MAS QUATRO enpresa kontratistak esaten duelako esleipena atera behar dela.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Hor ere egoera ezberdina da. Orain tratatzen ari garen ksuan lan-hitzarmena sinatuta eta erregistratuta dago.”

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Bai, baina esleipen baten baitan..”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ez. Datorrena datorrena ere hitzarmen hori aplikatu beharrean dago.”

Idazkariak esan du Kiroldegiarekiko diferentzia dela, etxez etxeko laguntza arloan ez dagoela sektoreko hitzarmenik. Aldiz Kiroldegiaren kasuan, estatuko sektoreko hitzarmena dago.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Kasuistika ezberdinak dira.”

Idazkari andreak esan du, jadanik 2022an GOXARA ari dela langileei %1a aplikatzen eta horregatik proposatu dela etxez etxeko laguntzaren kasuan, azaroan eta abenduan igoera hori kontuan hartzea.

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu) galdetu du eguneko zentroari buruz, adierazten denean, “...*Udalak GOXARA, S.L.ri konpentsatuko dizkio eguneratze horrekin estali ezin diren eta kontratistak justifikatu beharko dituen ustezko gastuak.*”, ea zer esan nahi duen.

Idazkariak erantzun du esanez urtarriletik aurrera sortzen diren gastuak, izan ezker, justifikatu egin beharko dituela, agian azaro eta abendurako egiten zaion eguneraketarekin sortzen zaizkion gastuak estali ditzakeelako. Azaldu du, urtarriletik aurrera ezin dela aurtengo azken bi hilabeteetako egiten den eguneraketaren aipamenik egin, Foru Aldundiak eguneraketa hori ez duelako jakinarazten urte amaiera arte, nahiz eta hitzez aurreratu gutxi gorabehera zein izango den eta hori dela arrazoa esateko aurtengo erregularizazioa abenduko fakturekin egingo dela.

Luzapen hau noiz artekoa izan daitekeen egindako galderari erantzun da esleipen berria egin artekoa izango dela eta aurreikusi badaiteke gutxi gorabehera zenbatekoa izango den ezin dela zehaztu eta horren gainean jurisprudentziak ez duela ezer esaten.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Gure eskuan dagoena da, OARC-en Ebazpena jaso eta agintzen duenaren arabera, lehenbailehen jokatu, hau da, lizitazioarekin jarraitu errekurtsioa ez badu onartzen edo plegua aldatu behar izan ezker, lizitazioa martxan jarri.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

## **6.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

#### KULTUR SORKUNTZAKO ESKAERAK

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Aipatzen da hiru eskaera daudela eta bat da internet bidez sartutako: "*Subvenciones para el 50 aniversario de la Parroquia*". Jakin nahi dugu nondik nora doan.

Xabier Matarranz Rico: "Liburua bat egin behar eta horretarako Proiektua aurkeztu zuten. Horri buruzko dirulaguntza da.

#### HURRENGO PLENOA

Alkate andreak esan du hurrengo Osoko Bilkura abenduaren 1ean izango dela eta bertan Aurrekontuak tratatuko direla eta horretarako, aldez aurretik, behar diren bilerak egingo direla

Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko zortziak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.